

Aurkibidea

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.....	3
1. artikulua. OINARRI ARAUTZAILEEN XEDEA ETA EREMUA.....	3
2. artikulua. ARAUDI ERREGULATZAILEA.....	3
3. artikulua. OINARRI ARAUTZAILEEN EREMUA ETA APLIKAZIOA.....	4
4. artikulua. OINARRI HAUETAN ARAUTZEN DIREN DIRULAGUNTZEN FINANTZIAZIOA, AURREKONTU-KREDITUAK ETA GEHIENEZKO ZENBATEKOA.....	4
5. artikulua. EMATEKO ARAUBIDEA.....	5
6. artikulua. OHAR OROKORRAK.....	5
II. KAPITULUA. ONURADUNEN ETA ERAIKINEN BALDINTZAK, ETA KUDEAKETA-BATZORDEAK.....	6
7. artikulua. LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEAK. ESTATU-LAGUNTZEN MUGAK BETETZEA.....	6
8. artikulua. LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEEN BETEBEHARRAK.....	7
9. artikulua. PARTE HARTZEN DUTEN BESTE ERAKUNDE BATZUK.....	10
10. artikulua. BESTE ERAKUNDE PARTE-HARTZAILEEN BETEBEHARRAK.....	10
11. artikulua. BIRGAITUKO DIREN ERAIKINEN BALDINTZAK.....	11
12. artikulua. KOMUNIKAZIOARI ETA PUBLIZITATEARI BURUZKO BALDINTZAK.....	12
13. artikulua. BATZORDE KUDEATZAILEAK. LANAK ESLEITZEKO BALDINTZAK.....	13
III. KAPITULUA. OINARRI HAUEN ARABERA DEITUTAKO DIRULAGUNTZAK.....	14
14. artikulua. BIRGAITZE ENERGETIKO ERAGINKORREAN KONTUAN HARTU BEHARREKO JARDUKETAK.....	14
15. artikulua. JABEEN ERKIDEGOENTZAKO LAGUNTZAK, ERAIKINEKO ENERGIA PRIMARIO BERRIZTAEZINAREN KONTSUMOA MURRIZTEKO JARDUERETAN.....	16
16. artikulua. AURRETIAZKO AZTERLANAK ETA PROIEKTU TEKNIKOAK.....	16
IV. KAPITULUA DIRULAGUNTZEN PROZEDURA, IZAPIDETZEA ETA ORDAINKETA.....	17
17. artikulua. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA, EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA.....	17
18. artikulua. DIRULAGUNTZA-ESKAERARI ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.....	18
19. artikulua. JASOTAKO LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTAZIOA.....	19
20. artikulua. DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEKO MODUA.....	20
21. artikulua. DIRU-LAGUNTZAK ORDAINTZEKO SEKUENTZIA.....	20
22. artikulua. AKATSAK EDO OMISIOAK ZUZENTZEA.....	21
23. artikulua. ERREKURTSOAK.....	21
V. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK, JARRAIPENA ETA ITZULKETA.....	22
24. artikulua. JARRAIPENA, KONTROLA ETA EBALUAZIOA. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.....	22
25. artikulua. LAGUNTZEN BALDINTZAK ALDATZEA.....	22
26. artikulua. EZ BETETZEA, ETA JASOTAKO DIRULAGUNTZAK ITZULTZEKO PROZEDURA.....	23
27. artikulua. IRUZURRAREN, USTELKERIAREN ETA INTERES-GATAZKEN ARRISKUA PREBENITZEA.....	24
28. artikulua. LAGUNTZAK ITZULTZEA, ESLEIPEN BIDE GABEEN KASUAN.....	24
29. artikulua. DNSH PRINTZIPIOA EZ BETETZEAGATIK LAGUNTZAK ITZULTZEA.....	24
30. artikulua. JABEEN ERKIDEGOARI EMANDAKO LAGUNTZAK ITZULTZEA, ELEMENTU PRIBATIBOAK INTER VIVOS BORONDATEZ ERABILTZEAGATIK.....	24
31. artikulua. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA.....	25
32. artikulua. DIRULAGUNTZEN ARTEKO BATERAGARRITASUNA.....	26
33. artikulua. AZPIKONTRATAZIOA.....	26
34. artikulua. DIRULAGUNTZEN ARLOKO ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK. ZEHAPEN-PROZEDURA.....	27
35. artikulua. ADMINISTRAZIO-BIDEAREN AMAIERA ADIERAZTEA.....	27
36. artikulua. DATU PERTSONALEN BABESA.....	27

- I. ERANSKINA. BETE BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEN EREDUAK.....28
II. ERANSKINA. (ERAIKUNTZA-PROIEKTUETAN ZIRKULARTASUNA EZARTZEKO ETA 853/2021 ERREGE-DEKRETUAREN PROGRAMETAN ZIRKULARTASUN-BETEKIZUNAK EBALUATZEKO LAGUNTZA-DOKUMENTUA (ISO 20887:2020 ARAUARI ERREFERENTZIA EGINEZ)

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. OINARRI ARAUTZAILEEN XEDEA ETA EREMUA

1.- Oinarri hauen xedea da urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 1. programaren esparruan definitutako bizitegi-erakinek eska ditzaketen laguntza ekonomikoen koordinazioa eta horiek izapidetzeko eta, hala badagokio, emateko baldintzak arautzea (853/2021 Errege Dekretua, urriaren 5ekoa, zeinaren bidez arautzen baitira berroneratze, eraldaketa eta erresilientzia planeko bizitegi birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak); Berroneratze eta Erresilientzia Mekanismoaren (BEM) 2. Osagaiaren baitan eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzeko xedearekin: C02.I01 inbertsioa «Bizitegi-inguruneen suspertze ekonomiko eta sozialerako birgaitze-programa».

Kasu honetan, auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programaren xedea da Andonaegiko Birgaitze Programatuko Bizitegi Ingurunea (ERRP) izeneko jarduketa-eremuaren barruan bizitegi-erabilera nagusia duten eraikinetan birgaitze-obrak batera egitea finantzatzea.

2.- Laguntzak, hala badagokio, Pasaia Udalak onartutako eraikinen "BIRGAITZE SAKONEKO jarduketetarako laguntzen programari" atxikitako bizitegi-erakinetan ENERGIA BIRGAITZEKO jarduketak egiteko emango dira, MITMAK, EJK eta Pasaia Udalak sinatutako aldebiko akordioan jasotzen den bezala.

3.- Kontseiluaren 2021eko ekainaren 16ko Betearazpen Erabakiaren (CID, ingelesezko siglak) eranskinean ezarritako helburuak betez –Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa–, programa honetako laguntzak emateak eta betearazteak helburu hauek betetzen lagunduko du:

- a) CID delakoaren 27. helburua: etxebizitzak berritzeko jarduketak amaitzea, batez beste energia primarioaren % 30 aurreztuta (231.000 berritze-jarduketa, gutxienez 160.000 etxebizitza bakarretan), 2023ko laugarren hiruhilekoan.
- b) CIDen 28. helburua: Eremu edo auzo berrituetako hektareak, batez beste energia primarioaren % 30 (600 ha) aurreztuta, 2026ko bigarren hiruhilekoan.
- c) CIDen 29. helburua: etxebizitzak berritzeko jarduketak amaitzea, energia primarioaren % 30eko batez besteko aurrezpenarekin (510.000 berritze-jarduketa, gutxienez 355.000 etxebizitza bakarretan), 2026ko bigarren hiruhilekoan.

2. artikulua. ARAUDI ERREGULATZAILEA.

1.- Oinarri arautzaile hauetan ezarritako dirulaguntzek, oinarrietan eta dagokien deialdian eta emateko ebazpenean xedatutakoaz gain, honako arau hauetan xedatutakoa bete beharko dute:

- a) 2021/241 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Berroneratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.
- b) Finantzaketa-akordioa, Europako Batzordearen eta Espainiako Erresumen artekoa.
- c) 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzen dituena.
- d) HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duena.
- e) HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena, Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien mugarren eta helburuen betetze-mailaren jarraipena egiteko eta aurrekontuak eta kontabilitatea gauzatzeko.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legearen V. kapitulua.
- g) 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

- h) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- i) 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.
- j) 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, uskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeen eta itzulketaren jardunbide orokorra arautzen duena eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, jardunbidea eta betebeharrak ezartzen dituena.
- k) 853/2021 ERREGE DEKRETUA, urriaren 5ekoa, Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak arautzen dituena.
- l) Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak (MITMA), Eusko Jaurlaritzak (EJ) eta Udalak sinatutako aldebiko akordioa, 853/2021 Errege Dekretuaren 1. programaren baitan ERRP kudeatzeko, sinatzen den egunetik.
- m) Pasaia Udalari emandako zuzeneko dirulaguntzaren oinarriak, udalerriko Andonaegi auzoan hiria berroneratzeko eta eraikinak birgaitzeko jarduketak finantzatzeko, MITMAk, Eusko Jaurlaritzak eta Udalak sinatutako aldebiko akordioa betez, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak onartu zuenetik.

2.- Era berean, aplikatzekoak izango dira honako hauek:

- a) Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko otsailaren 8koa, Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketan eta proiektuen kontabilitate- eta aurrekontu-betearazpenari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez argitaratua (2022ko martxoaren 4ko EHAA, 46. zk.).
- b) Erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluarena, 2022ko martxoaren 29koa, "Iruzuraren, interes-gatazkaren, finantzaketa bikoitzaren eta Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana onartzen duena. Plan hori Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez argitaratu zen, zeinaren bidez erabaki hori argitaratzea xedatzen baita (2022ko apirilaren 13ko EHAA, 74. zk.).

3.- Jabekideen erkidegoek laguntza eman duen administrazioak horretarako har ditzakeen arauak bete beharko dituzte, bai eta eskumena duten gainerako agintariek (autonomikoez, Estatuak nahiz Europakoak) hartutakoak ere, eta aipatutako finantzaketaren jatorriagatik laguntza hauen onuradun izateagatik ezartzen diren betebeharrak guztiak.

3. artikulua. OINARRI ARAUTZAILEEN EREMUA ETA APLIKAZIOA.

1.- Oinarri arautzaile hauen aplikazio-eremua hau da: oinarri hauetako 1. artikuluan zehaztutako eremuan hiri-berroneratze integraleko esku-hartzeak egiteko Udalari emandako zuzeneko dirulaguntza emateko mugatutakoa. (1. Artikulua. OINARRI ARAUTZAILEEN XEDEA ETA EREMUA).

2.- 853/2021 Errege Dekretuaren 10. artikulua betetzeko ondorioetarako, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak emandako zuzeneko dirulaguntza emateko izapidetutako dokumentazioarekin 853/2021 Errege Dekretuaren 12. artikuluan ezarritako eskakizunak bete direla uste da..

Ondorioz, 853/2021 Errege Dekretuaren 12. artikuluan adierazitako aldebiko akordioa onartu ondoren, oinarri hauek akordio horretan ezarritako baliabide ekonomikoak kudeatzeko balio dute, honako helburu honekin:

- "Birgaitze energetiko eraginkorra", 14. artikuluan (BIRGAITZE ENERGETIKO EFIZIENTEAN KONTUAN HARTU BEHAR DIREN JARDUKETAK) garatzen diren baldintzetan, Pasaia Udalak onartutako "Eraikinen BIRGAITZE SAKONEKO JARDUKETETARAKO laguntzen Programari" atxikita dauden Andonaegi auzoko bizitegi-eraikin kasuan..

4. artikulua. OINARRI HAUETAN ARAUTZEN DIREN DIRULAGUNTZEN FINANTZIAZIOA, AURREKONTU-KREDITUAK ETA GEHIENEZKO ZENBATEKOA

1.- Oinarri hauen zuzkidura ekonomikoa funts hauetatik dator: Europako Berreskuratze Tresnaren ("Next Generation EU") "1. Programako" (853/2021 EDko auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza) funtsak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak, 2021eko otsailaren 12koak, Berroneratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, ezarritako Berroneratze eta Erresilientzia Mekanismoaren bitartez.

Laguntzen gehieneko zenbatekoak MITMAK, EJK eta Udalak sinatutako aldebiko akordioan agertzen direnak dira: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak transferitutako funtsen kontura, 2022ko urriaren 28ko transferentzia-ebazpenaren bidez, «Auzo mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programaren» (1. programa) barruan finantzatu da, gehienez ere 5.843.472,00 € arte.

2.- Hiri-berroneratzeko jarduketan barruan, ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKORA bideratutako zenbatekoak eta, beraz, oinarri hauetako laguntzak **5.041.472,00 eurokoak izango dira gehienez.**

Dirulaguntzaren azken zenbatekoa dirulaguntzaren xedea betetzen duten eta benetan birgaituta dauden etxebizitzaren kopuruaren arabera zehaztuko da, 853/2021 Errege Dekretuaren 15. artikuluan eta oinarri hauen 15. artikuluan (ERAIKINAREN ENERGIA PRIMARIOAREN KONTSUMO BERRIZTAEZINA MURRIZTEKO JARDUKETETAN JABEKIDEEN ERKIDEGOENTZAKO LAGUNTZAK) ezarritako laguntzaren gehieneko zenbatekoaren eta dirulaguntzaren gehieneko ehunekoaren irizpideei jarraituz.

4.- Laguntzak eskatzeko gehienezko epea oinarri hauetan jasotakoa izango da, eta esku-hartzeak 2025eko apirilaren 30erako bukatuak izan beharko dira.

5. artikulua. EMATEKO ARAUBIDEA.

1.- Udalak zuzeneko emakidaren bidez emango du laguntza hori, jabe-kideen erkidego bakoitzerako banakako ebaluazio-sistemaren bidez (1. artikulua. OINARRI ARAUTZAILEEN XEDEA ETA EREMUA), eta 17. artikuluan (ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA, EBAZPENA ETA JAKINARAZPENEA) adierazitako mugari eta epeekin.

6. artikulua. OHAR OROKORRAK

1.- Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa zehazteko, garatu beharreko jardueren kostu osoa hartuko da kontuan, hurrengo puntuetan ezarritako zenbatekoak finkatzeko irizpideen arabera. Beraz, diruz lagun daitezkeen jardueren artean sartu ahal izango dira jarduera bakoitza garatzeko beharrezkoak diren gastuak, honako hauek barne:

- Obren kostu zuzenak eta zeharkakoak, osorik edo partzialki egotz dakizkiokeenak.
- Hondakinen kalitate-kontrolari, erretiratzeari, garraioari eta kudeaketari, erabilitako bitarteko osagarriak eta abarri buruzkoak.
- Jardueren garapenari eta lotutako gastuei atxikitako kudeaketa.
- Esku hartzen duten profesionalen ordainsariak, proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko ordainsariak, ziurtagiri eta txosten teknikoak eta eraikineko etxebizitzaren monitorizazioa.
- Dagoen Eraikinaren Liburua eta, hala badagokio, EITa egitea. Eraikinaren Liburuak honakoa bete behar du: Birgaitzeko Eraikinaren Liburua egiteko gida. 853/2021 Errege Dekretuaren I. eranskina justifikatzeko jarraibideak, gomendioak, aholkuak eta adibideak. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioko Hiri Agenda eta Etxebizitza Idazkaritza Nagusiak egina 2021ean.
- Administrazio-izapidetzearen ondoriozkoak,
- Okupatzaileei aldi baterako beste bizileku bat ematea, gizarte-laguntza ematea eta antzeko beste jarduera batzuk, bidezkoak diren jarduketekin lotuta.
- BEZa edo zeharkako zerga baliokidea, baldin eta berreskuratzerik edo konpentsatzerik ez badago, osorik

edo zati batean.

2.- Lizentziei, tasei eta BEZaz bestelako zerga edo zergei dagozkienak ez dira diruz lagunduko.

3.- Euskadi etorbidea 25T helbidean dagoen Hurbileko Kudeaketako Bulego Teknikoa (HKBT), partikularrekin eta jabeekideen erkidegoekin lankidetzan arituko da, oinarri hauen arabera laguntza horiek eskatzeko behar den dokumentazioa prestatzeko.

4.- Atal honetako hurrengo puntuetan zerrendatutako jarduera guztietarako laguntzen eskabideetan, jarduketan kostuaren eta zenbatekoaren gaineko ehunekoa adieraziko da. Era berean, OTGPK, leihatila bakarraren funtzioan, laguntza horiei buruzko informazioa emango du, helburu berarekin, horiekin bateragarriak diren beste laguntza batzuekin batera. OTGPK prozesu osoan dokumentu bat egingo du, onuradunek eskatu dituzten edo eskatuko dituzten laguntza guztien zerrenda, ehunekoa eta zenbatekoak jasoko dituen, finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko eta eman daitezkeen dirulaguntza guztiek jarduera horien kostuaren % 100 gaindi ez dezaten.

5- Laguntzen azken onuradunek berariaz adierazi beharko dute Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudian ezarritako iruzurraren aurkako neurri guztiak eta oinarri hauetan jasotakoak betetzeko konpromisoa. Konpromisoa jakinarazpenean formalizatuko da, eta laguntzak onartzeko dokumentua esleipendunek sinatu beharko dute.

II. KAPITULUA. ONURADUNEN ETA ERAIKINEN BALDINTZAK, ETA KUDEAKETA-BATZORDEAK

7. artikulua. – LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEAK. ESTATU-LAGUNTZEN MUGAK BETETZEA.

1.- Honako hauek izan daitezke laguntzen azken hartzaileak:

- a) Etxebizitza kolektiboko bizitegi-tipologiako eraikinen jabeak edo gozamedunak, bai eta haien etxebizitzak ere, pertsona fisikoak izan zein izaera pribatuko edo publikoko nortasun juridikoa izan.
- b) Etxebizitzaren jabeak eta errentariak erabakitzen badute errentariak bere kontura ordaintzea dagozkion birgaitze-jarduketak, errenta ordaintzearen truke, errentariak jabeen erkidegoari edo, hala badagokio, jabe bakarrari eskatu ahal izango dio laguntza horiek eskatzeko eskatzen den erabakia hartzea. Kasu horretan, errentaria azken hartzailetzat hartu ahal izango da.
- c) Administrazio publikoak eta zuzenbide publikoko organismo eta gainerako erakundeak, bai eta higiezin jabe diren administrazio publikoen partaidetza osoa edo gehiengoa duten enpresa publikoak eta merkataritza-sozietateak ere.
- d) Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 5. artikuluan edo aplikatzekoak diren foru-arauetan ezarritakoaren arabera eraturako jabeekideen erkidegoak edo jabeekideen erkidegoen elkarteak.
- e) Taldean, Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta jabetza horizontala eratzeko titulua eman ez duten eraikinen jabeak.
- f) Elkartuta, Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten etxebizitzaren edo eraikinen jabeek osatutako kooperatiba-sozietateak, eta, halaber, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 5. artikuluan arabera edo foru-arau aplikagarrietan baliokidea denaren arabera eraturako jabeen erkidegoak edo jabeen erkidegoen elkarteak osatzen dituzten jabeek eta beren etxebizitzaren erabilera-lagapeneko araubidean dauden kooperatibek osatutako kooperatiba-sozietateak.
- g) Eraikinen enpresa errentariak edo emakidadunak, bai eta izaera hori indarreko kontratu bidez

egiaztatzen duten kooperatibak ere, baldin eta kontratu horrek programaren xede diren birgaitze-obrak egiteko berriazko ahalmena ematen badie.

2.- Jarduketa gauzatzea azken hartzaile bati baino gehiagori dagokienean, bakoitzak bere gain hartutako kostuaren eta erantzukizunaren arabera banatuko da laguntza.

3.- Azken hartzaileek, edo, hala badagokio, haien kontura jarduten duen birgaitzearen agente edo kudeatzaileak, laguntzaren zenbateko osoa dagozkion jarduketak ordaintzeko erabiliko dute.

4.- Jabekideen erkidegoak eta jabekideen erkidegoen elkarteak direnean ere, arau hori aplikatuko da, alde batera utzita bai horren zenbatekoa, bai obren kostua, etxebizitzaren jabeengan jasanarazi behar den, eta, hala badagokio, merkataritzako lokalen jabeengan edo bestelako erabilera bateragarrien jabeengan, jabetza horizontalari buruzko legerian aurreikusitako arauen arabera.

Hala ere, jabeen erkidegoko edo jabeen erkidegoen elkarteko kideren batek ezin badu laguntza jaso beste lege-arrazoi bat dela medio, ez zaio jabe horri emango jasotako laguntzaren dagokion zati proportzionala, eta erkidegoaren edo elkartearen gainerako kideen artean proportzionalki banatuko da.

5.- Azken hartzaile diren enpresei edo merkataritza-jarduera garatzen dutenei emandako laguntzek, baldin eta estatu-laguntzen araudia aplikatu behar bazaie energia-eraginkortasuneko neurrietara bideratutako inbertsioak egiteko eta iturri berriztagarrietatik sortutako energia sustatzeko, honako hauetan ezarritako betekizunak eta mugak bete beharko dituzte: Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamendua, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz, eta Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzei buruzkoa. Halaber, hala badagokio, ezargarria izango da honako hau: «Aldi Baterako Esparru Nazionala, enpresei eta autonomoei laguntzeko zuzeneko dirulaguntzei, aurrerakin itzulgarriari, abantaila fiskalei, maileguren bermeei eta maileguren interes-tasen hobariei buruzkoa, egungo COVID-19aren agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko».

7.- Bereziki, laguntzaren azken hartzailea jarduera ekonomikoak edo merkataritza-jarduerak egiten dituen pertsona fisiko edo juridikoa bada, estatu-laguntzen arloan honako araubide hau aplikatuko da:

a) Azken hiru zerga-urteetan emandako laguntzen zenbatekoa eta deialdi honetan eskatutako laguntzaren zenbatekoa batuta 200.000 eurotik beherakoa bada, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzei buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa aplikatuko da.

b) Azken hiru zerga-urteetan emandako laguntzen zenbatekoaren eta deialdi honetan eskatutako laguntzaren zenbatekoaren batura 200.000 eurokoa edo handiagoa bada, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa aplikatuko da, eta eraginkortasun energetikoko neurrietara bideratutako inbertsio-laguntzei dagokien salbuespena aplikatuko da (38. artikulua). 651/2014 (EB) Erregelamenduaren bidez, laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz. Europako Batzordeari salbuespen horren berri emango zaio, deialdi-agindu hau argitaratu eta 20 eguneko epean.

8.- Aurreko letretan xedatutakoa eragotzi gabe, kontuan hartuta laguntzek enpresen eta autonomoen likidezia hobetzen lagun dezaketela gaur egungo testuinguruan honako hau aplikatu ahal izango da, baldin eta laguntza emateko behin betiko ebazpena araubide honen indarraldia amaitu aurrekoa bada: «Enpresei eta autonomoei zuzeneko dirulaguntzak, aurrerakin itzulgarriak, abantaila fiskalak, maileguren bermeak eta maileguren interes-tasen hobariak emateko neurriei buruzko Aldi Baterako Esparru Nazionala, egungo COVID-19 agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko». Europako Batzordeak onartu zuen esparru hori 2020ko apirilaren 2ko SA.56851 (2020/N) Erabakian eta haren aldaketetan.

8. artikulua. LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEEN BETEBEHARRAK

1.- Dirulaguntzen eskabideak baino lehen edo aldi berean, eta horiek betetzeko eska dakiekeen dokumentazioaren kaltetan izan gabe, oinarri hauetako 18. artikuluan ageri den bezala (DIRULAGUNTZA ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA), laguntzen azken onuradunek eta hartzaileek, gainera, Europar Batasunaren Berroneratze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari buruzko betebeharrak europarrak eta nazionalak bete beharko dituzte: Horretarako, honako jarduketa hauek egitera eta Udalari honako dokumentazio hau entregatu behar dute, Udalak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzari helaraz diezaion:

a) Azken hartzaileak dirulaguntzaren onuradun izango dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharren ondorioetarako, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun izateko debekuen eraginpean ez daudela egiaztatuko dute, artikuluko horretako e) idatz-zatia izan ezik, zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzeko betebeharrari buruzkoa dena.

b) Laguntzen azken hartzaileak pertsona juridikoak direnean, berariaz egiaztatu edo adierazi beharko dute eskaeran behar bezala eratu daudela, aplikatu beharreko araudiaren arabera. Nortasun juridiko propioz ez duten entitateen kasuan, jabeen erkidegoak izan ezik, eskabidean zein emakida-ebazpenean berariaz jaso beharko dira elkarteko kide bakoitzak bere gain hartutako exekuzio-konpromisoak, bai eta horietako bakoitzak aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere. Edonola ere, taldearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, eta horrek behar besteko boterea izango du.

c) Azken hartzaileek berehala jakinarazi beharko diote laguntza izapidetzen ari den edo laguntza onartu duen Udalari, baita eskaera izapidetzen ari den bitartean ere, onarpen hori eragin duten edo eragin dezaketen baldintzetan izandako edozein aldaketa, baldin eta aldaketa laguntza-eskubidea galtzea ekar dezake. Aldaketa horien berri ez ematea nahikoa arrazoi izango da bidegabe kobratu diren zenbatekoak itzultzeko espedientea hasteko.

d) Onuradunaren benetako titulartasunaren identifikazioa, funtsen azken hartzailearen izena, jaioteguna eta laguntzaren kontzeptua adierazita. Identifikazio hori egingo da hura Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluan 6. puntuan definitzen den zentzuan, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluekin lotuta.

e) Titulartasun erreala egiaztatzea, datuen lagapena baimentzea, beharrezkoa denean, eta agintaritzaren eskudunek eskatzen dituzten erantzukizunpeko adierazpen guztiak aurkeztea, Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan eta 2021/241 (EB) Erregelamenduaren esparruan eska daitezkeen betebeharrak betetzeko araudi nazional eta europarrarekin bat etorriz. Berroneratze eta Erresilientziaren esparruan garatutako laguntza-programak direnez, azken hartzailearen betebehartzat hartuko da bere datuak estatu kideak proposatutako datu-base bakar batean erregistratzea, bai eta Europako erakundeek egindako kontrolen mende egotea ere: Europako Batzordea, Iruzzurren aurka Borrokatzeko Bulegoa, Europako Kontuen Auzitegia eta Europako Fiskaltza.

f) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako kasuetan, programako laguntzak ematerakoan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, edo Estatu Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legearen 7. artikuluan arabera, BEEPi lotuta dagoen araudiaren mugariak, helburuak, epeak edo beste edozein alderdi betetzen ez badira; jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasiko da, eta berandutze-interesa eskatuko da, dirulaguntza ordaintzen den unetik aurrera, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluko II. kapituluaren araututako itzulketa-prozedura aplikatuko da.

g) "DNSH Printzipioa – Do Not Significant Harm" (ingurumenari kalte handirik ez egiteko printzipioa), etiketatze

klimatikoaren baldintzak (025 bis esku-hartze eremua- % 100eko ekarpen klimatikoa eta % 40ko ingurumen arlokoa eta 025eko esku-hartze eremua- % 40ko ekarpen klimatikoa eta ingurumen arlokoa) eta etiketatze digitala (ez da aplikatzen etiketatze digitalerako deialdiak laguntzen duen esku-hartze eremua) erabat betetzen direla bermatzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduan eta otsailaren 12ko Kontseiluaren Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean (Council Implementing Decision – CID) Espainiako berroneratze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa) aurreikusitakoarekin bat etorritik. HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren eta hura garatzeko araudiaren kudeaketa-sistema konfiguratuena, proiektuen diseinuaren eta gauzatzearen fase guztietan eta banaka jarduketak bakoitzarako. Nolanahi ere, erakunde onuradunek printzipio hori betetzen dela egiaztatzeko mekanismoak eta hura ezartzen dela ziurtatzeko neurri zuzentzaileak aurreikusiko dituzte, eta horren berri emango dute dirulaguntza justifikatzeko memorian. Berme hori oinarri hauetako I. ERANSKINEKO ereduaren arabera izango da (BETE BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEN EREDUAK).

h) Interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik ez dagoela bermatzea, eta Eusko Jaurlaritzak edo Udalak onartutako iruzurraren aurkako Neurrien Plana baldintzarik gabe eta erreparorik gabe onartzea. Plan horren xedapenetara erabat behartuta egongo da, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari buruzko araudi autonomikoa, estatukoa eta Europakoa erabat errespetatuz, bai eta erakundeek Europar Batasunaren finantza-interesak babesteari buruz hartzen dituzten erabakien arabera ere. Berme hori oinarri hauetako I. ERANSKINEKO 1. ataleko ereduaren arabera izango da (BETE BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEN EREDUAK).

i) Estatuko edo nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikotik helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskuratu izana jakinaraztea Udalari, dirulaguntzak ematen dituen Administrazioa den aldetik, kostu bererako gainfinantzaketarik izan ez dadin.

j) Europako Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Bulegoak (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak onartzea. Horretarako, organo horiei dirulaguntzari buruz behar den informazio guztia emango zaie, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduen 22.2.e) artikuluan ezarritako baldintzetan.

k) Berariak baimena ematea Batzordeari, OLAFi, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari, Finantza Erregelamenduen 129. artikuluan 1. atalak aitortzen dizkien eskubideak erabil ditzaten, eta Berroneratze eta Erresilientzia Planean jasotako erreformak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurrietarako ordaindutako funtsen azken jasotzaile guztiak edo planaren aplikazioan esku hartzen duten gainerako pertsona edo erakunde guztiak behartzea.

l) Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten dokumentuak zaintzea eta gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketak egin ahal izateko, bost urteko epean edo, finantzaketaren zenbatekoa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada, hiru urteko epean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduen 132. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduen 22.2.f) artikuluan ezarritakoaren arabera.

m) Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikulua ezartzen dituen komunikazio-betebeharrak betetzea. Bereziki, inbertsioek garatzen dituzten jarduketari buruzko informazio- eta komunikazio-neurrietan (informazio-kartelak, plakak, argitalpen inprimatuak eta elektronikoak, ikus-entzunezko materiala, web-orriak, prentsan iragarkiak eta txertatzeak, ziurtagiriak eta abar), honako logoak jaso beharko dira: a) Europar Batasunaren ikurra. b) Batasunaren ikurrarekin batera, "Europar Batasunak finantzatua: Next Generation EU" testua. c) 821/2014 Beteazpen Erregelamenduen II. eranskinean ezarritako arau grafikoak eta kolore normalizatuak hartuko dira kontuan.

n) Jabeen Erkidegoak jasotako laguntzetan jabeen komunitateko elementu bakoitzak duen partaidetzari dagokion zenbatekoarekin bazterreko ohar bat jabetza-erregistroan inskribatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko

Administrazio Orokorrari itzultzea, baldin eta entervivos eskualdatze bat gertatzen bada, oinarri hauetako 30. artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik (JABEEN ERKIDEGOARI EMANDAKO LAGUNTZAK ITZULTZEA, ELEMENTU PRIBATIBOAK INTERVIVOS BORONDATEZ BEREGANATZEAGATIK).

o) Identifikazio-datuak datu-base bakar batean sartzeko aukera ematea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan eta BEEPen kudeaketa-sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

2.- Pasaia Udalak Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoaren (NISAE) bidez honako hauek egiaztatzeko informazioa kontsultatu edo eskatu ahal izango du:

- a) Gipuzkoako Foru Aldundia: zerga-betebeharren ordainketan egunean egotea.
- b) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketan egunean egotea.

9. artikulua. PARTE HARTZEN DUTEN BESTE ERAKUNDE BATZUK

1.- Oinarri hauen ondorioetarako, "beste erakunde parte-hartzaile batzuk" honako hauek dira: dalak, laguntzak ematen dituen administrazioa den aldetik, eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza eta Hiri Agendaren Zuzendaritzarekin bat etorritik, zenbait eskumen ematen dizkien pertsona fisiko edo juridikoak, izan pribatuak, publikoak edo mistoak; pertsona onuradunei tramitazioan eta kudeaketan laguntza emateko eta bidea errazteko.

2.- Bereziki esparru honetan "Esku hartzen duten beste erakunde batzuk" hauek dira:

- a) "Kudeaketa Batzordeak", oinarri hauen 13. artikuluan azaldutakoaren arabera (KUDEAKETA-BATZORDEAK. LANAK ESLEITZEKO BALDINTZAK).
- b) "Bulego Teknikoa eta Hurbiltasuna Kudeatzeko Bulegoa", urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 15. artikuluan (Laguntzen zenbakekoa) 2.d) puntuan adierazitakoaren arabera ("Birgaitze-bulego bat, leihatila bakarraren tipokoa"). Errege-dekretu horren bidez, Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko egoitza-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak arautzen dira.
- c) "**Birgaitzearen eragileak eta kudeatzaileak**", Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak arautzen dituen urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 8. artikuluan azaldutakoaren arabera.
- d) Hala badagokio, "**Entitate Laguntzaileak**", Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak arautzen dituen urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 7. artikuluan azaldutakoaren arabera.

10. artikulua. BESTE ERAKUNDE PARTE-HARTZAILEEN BETEBEHARRAK

1.- Onuradun izango diren beste erakunde esku-hartzaileek edo erakunde laguntzaileek, onuradun izateko, eskaera bat aurkeztu beharko dute Pasaia Udalean, honako agiri hauekin batera:

- a) Erakunde parte-hartzaileak pertsona juridikoak direnean, berriaz egiaztatu edo adierazi beharko dute eskaeran behar bezala eraturik daudela, aplikatu beharreko araudiaren arabera. Nortasun juridiko propioa ez duten entitateen kasuan, eskabidean zein emakida-ebazpenean berriaz jaso beharko dira taldeko kide bakoitzak bere gain hartutako exekuzio-konpromisoak, bai eta horietako bakoitzak aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbakekoa ere. Nolanahi ere, taldearen ordezkari edo ahalduz bakarria izendatu behar da, ahalorde askietsiekin, eta haren kaudimen tekniko eta ekonomiko egiaztatu behar da ezartzen den prozeduraren bidez. Betebehar horretatik kanpo geratzen dira 9. artikuluko (BESTE ERAKUNDE PARTE-HARTZAILE BATZUK) a) azpiatalean jasotzen diren kudeaketa-batzordeak, ez baitira erakunde onuradunzat

hartuko, ezta erakunde laguntzailatzat ere.

- b) Erantzukizunpeko adierazpena, «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioari («do not significant harm – DNSH» printzipioa) egokitzeari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 6. paragrafoan ezarritakoaren arabera, eta, hala badagokio, etiketatze klimatiko eta digitala betetzeari buruzkoa, Ministroen Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartutako Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean aurreikusitakoarekin bat, I. ERANSKINEAN jasotako formularioaren arabera (BETE BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEN EREDUAK). Ingurumenari kalte handirik ez egiteko erantzukizunpeko adierazpen-eredua (DNSH printzipioa), erakunde eskatzaileak behar bezala bete. Eredu hori oinarri hauetan jasota dago.
- c) Interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA), 27. artikuluan jasota dagoen moduan (IRUZUR, USTELKERIA ETA INTERES-GATAZKEN ARRISKUA PREBENITZEA), oinarri hauetako I. eranskineko 1. atalean jasotako formularioarekin bat etorri (BETE BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEN EREDUAK).
- d) Dirulaguntza ematen duen Administrazioak eta Eusko Jaurlaritzak onartutako Iruzzurren aurkako Neurrien Plana baldintzarik gabe eta inolako eragozpenik gabe onartzeko adierazpena (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzararekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenari jarraikiz, 2022ko apirilaren 13ko EHAA argitaratua, 74. zenbakian). Iruzzurren aurkako borrokari buruzko Adierazpen Instituzionala erakundearen web-orrian argitaratuko da eta iruzurren aurkako borrokan estandar etiko gorenak lortzeko konpromisoa hartzen duen adierazpen argi eta sendoa jasoko du. Dokumentu honen I. ERANSKINEAN (BETE BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEN EREDUAK) IRUZURAREN AURKAKO adierazpen bat jasotzen da, neurri hori betetzea ahalbidetzeko.
- e) Esku hartzen duten administrazio publikoen arteko datu-lagapenaren onarpen-adierazpena, funtsen erabilera ikuskatu eta kontrolatzeko, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- f) Berariazko baimena Batzordeak, Iruzzurren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta agintari nazional eskudunek beren eskumenak baliatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua) xedatutakoari dagokionez.

11. artikulua. BIRGAITUKO DIREN ERAIKINEN BALDINTZAK

1.- Deialdi honetako finantziazioa eskatzen den eraikinek honako baldintza hauek bete behar dituzte, diruz lagundu daitezkeen jarduerak gauzatzeko direla justifikatzeko:

a) Egin beharreko jardueren proiektua izatea.

Proiektuak eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko azterlan bat jasoko du. Ondoren, eraikuntza- eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko **plan** egokian garatuko da, eraikuntza- eta eraispenerako hondakinak ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Dekretuan ezarritakoaren arabera, eta honako baldintza hauek beteko dira:

Eraikitze-gunean sortutako eraikuntzako eta eraispenerako hondakin ez-arriskutsuen % 70 (Europako zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala eta 2000/532/EE Erabakian ezarritako hondakinak izan ezik) beste berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, baita hondakinak beste material batzuk ordezkatzeko erabiliz egindako betelanak ere, hondakin hierarkiaren eta EBko eraikuntza- eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko protokoloaren arabera. 67ko 21. orrialdea, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa.

Eraikuntzarekin eta eraispenerarekin lotutako prozesuetan hondakinak sorrera mugatu beharko dute operadoreek, EBko eraikuntza- eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorri, eta eskura

dauden teknika onenak kontuan hartuz eta eraispn selektiboa erabiliz, substantzia arrisksuak ezabatu eta segurtasunez manipulatu ahal izateko, eta kalitate handiko berreraikitzea eta birziklatzea errazteko, materialak gaika ezabatuz, eraikuntza- eta eraispn-hondakinatarako eskuragarri dauden sailkapen-sistemak erabiliz. Era berean, eraispna ahal dela modu selektiboan egitea ezarriko da, eta sailkapena ahal dela hondakinak sortzen diren lekuan egingo da.

Proiektuak kalitatea kontrolatzeko programa bat izango du, eta programa hori kalitate-kontrola kudeatzeko dagokion planean garatuko da, Eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duen urriaren 28ko 209/2014 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Programa horretan, gutxienez, honako baldintza hauek jasoko dira espezifikoki, baina ez eskusiboki:

1. Termografia kualitatiboak egingo dituzte horretarako egiaztatutako langileek, esku-hartzearen aurretik.
2. Erabiliko den fatxadako isolamenduaren euskarriaren gainean (SATE edo fatxada aireztatua) trakzio- eta euste-ahalmeneko saiakuntzak egingo dira. Isolamendu-sistemak eta hura obran jartzeko sistemak erabilitako produktuaren fabrikatzaileak emandako egokitasun-ziurtagiria izan beharko du.
3. Arotzeriek eta beirek airearekiko iragazkortasunari, urarekiko estankotasunari eta haize-kargarekiko erresistentziari buruzko saiakuntzak izan beharko dituzte, eta haien ezaugarriei, emaitzei eta transmitantziari buruzko ziurtagiriak izan beharko dituzte.

b) Eraikinen eta eraikuntza-tekniken diseinuak

Diseinu eta tekniket zirkulartasuna bultzatuko dute, eta, bereziki, ISO 20887 arauari edo eraikinen desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna ebaluatzeko beste arau batzuei erreferentzia eginez, erakutsiko dute diseinatuta daudela baliabideak erabiltzean eraginkorrak izateko, moldagarriak, malguak eta desmuntagarriak izateko, berreraikitzea eta birziklatzea ahalbidetearren.

c) Jarduketaren xede den eraikinetik amiantoaren duten eraikuntza-produktuak kentzea.

Produktu horiek legez baimendutako enpresa batek erretiratu beharko ditu, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko gutxienezko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Prozesuan sortutako hondakinak kudeaketa eraikuntza- eta eraispn-hondakinak ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera egin beharko da.

2.- Era berean, bizitegi-tipologia kolektiboa duten eraikinen kasuan, honako hauek bete beharko dira:

1. Gutxienez sestra gainean eraikitako azaleraren % 50ek etxebizitza-erabilera izatea, beheko solairua edo beheko solairuak izan ezik, beste erabilera bateragarri batzuk baditu edo badituzte.
2. Jarduketek kasuan kasuko jabe-erkidegoaren edo behar bezala elkartutako jabe-erkidegoen adostasuna izatea, jabe bakarreko eraikinen kasuan izan ezik, eta kasuan kasuko administrazio-baimena edo -baimenak izatea, nahitaezkoa denean.

3.- Zirkulartasunari buruzko baldintzak bete beharko dira. II. ERANSKINEAN (ERAIKUNTZA-PROIEKTUETAN ZIRKULARTASUNA EZARTZEKO ETA 853/2021 ERREGE DEKRETUAREN PROGRAMETAN ZIRKULARTASUN-BALDINTZAK EBALUATZEKO LAGUNTZA DOKUMENTUA (ISO 20887:2020 ERREFERENTZIA DUENA)) jaso da 853/2021 ERREGE DEKRETUAREN programetan zirkulartasuna inplementatzeko eta zirkulartasun-betekizunak ebaluatzeko laguntza dokumentua (ISO 20887:2020 erreferentzia duena), zirkulartasun-arloko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentu-eredua.

12. artikulua. KOMUNIKAZIOARI ETA PUBLIZITATEARI BURUZKO BALDINTZAK

1.- Oinarri hauen arabera emandako laguntzen kudeatzaileek eta onuradunek EBtik jasotako finantzaketaren jatorria

12 / 50

aitortu eta ikusgarritasuna bermatzeko betebeharrak orokorra dute. Laguntzen xede den jardunari buruz edozein hedabidetan egiten den erreferentzia orok honako hauetan zehaztutakoa bete beharko du:

- Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikulua ezartzen dituen komunikazio-betebeharrak.
- «Nahitaez bete beharreko komunikazio-betebeharrak buruzko FAQ», Berroneratze eta Erresilientzia Mekanismoarena.
781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, tokiko araubidearen gaitan indarreko lege xedapenen Testu Bategina onartzen duena.
- "Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren funtsen kudeatzaile eta onuradunentzako komunikazio-eskuliburua", Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Europako Funtzen Idazkaritza Nagusiak egina.
https://www.mitma.gob.es/recursos_mfom/paginabasica/recursos/manual_de_comunicacion_para_los_gestores_del_plan_O.pdf
- Berroneratze eta Erresilientzia Mekanismoaren (BEM) onuradunen eta kudeatzaileen komunikazio-, publizitate- eta hedapen-betebeharrak
<https://www.mitma.gob.es/ministerio/proyectos-singulares/prtr/transporte/publicidad-y-difusion-de-las-ayudas-del-mecanismo-de-recuperacion-y-resiliencia>

2.- Era berean, karteletan edo beste komunikazio-euskarri batzuetan, hala nola sare sozialetarako infografietan, aurkezpenetan edo karteletan, lakuak, lehentasunez, behealdean jarriko dira, eta honako hauek instalatu eta mantendu beharko dira:

- Aldi baterako kartel bat jarri eta mantendu** beharko da obrak irauten duen bitartean, proiektuaren kokapenean herritar guztiak ikusteko moduko leku batean, ahal dela eraikinaren fatxada estaltzen duen instalazioan edo aldamioan, eta, betiere, xedatuta dagoenaren arabera eta kasuan kasuko udal-ordenantzen arabera, behar besteko tamainakoa, proiektuaren izenburua eta Programaren izena eta irudia argi eta garbi jasoko dituen eta Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza aipatuko duena. Kartelaren diseinu grafikoak eta hedapenerako euskarriek BEMak ezarritako baldintzak beteko dituzte. Baldintza horiek Programaren Irudi Eskuliburuan egongo dira eskuragarri, aurreko Interneteko helbideetan.
- Kartel iraunkor bat jarri beharko da** proiektuaren kokalekuan, herritar guztiak ikusteko moduko leku batean, ahal dela eraikinaren fatxada estaltzen duen instalazioan edo aldamioan, eta, betiere, xedatuta dagoenaren arabera eta kasuan kasuko udal-ordenantzen arabera, behar besteko tamainakoa, proiektuaren izenburua eta Programaren izena eta irudia argi eta garbi jasoko dituen eta Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza aipatuko duena. Kartelaren diseinu grafikoak eta hedapenerako euskarriek BEMak ezarritako baldintzak beteko dituzte. Baldintza horiek Programaren Irudi Eskuliburuan egongo dira eskuragarri, aurreko Interneteko helbideetan.

3.- Esparru honetan garatzen diren deialdi, lizitazio, hitzarmen eta gainerako tresna juridiko guztiak honako erreferentzia hau jaso behar dute bai goiburuan eta bai barruko testuan ere: «Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana».

4.- Honako dokumentu hauetan aplikatuko da:

- Laguntzak eskatzeko inprimakiak
- Lizitazio-iragarkiak
- Administrazio-klausulen eta preskripzio teknikoaren agiriak
- Kontratuak
- Kontratatistak aurkeztutako lanak (azterlanak, txostenak, inkestak, beste batzuk)
- Prentsa-oharrak (testuaren gorputzean erreferentzia jasoz)

5.- Hala dagokionean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean oinarri hauen xede diren laguntzen publikitate-betebeharrei buruz ezarritakoa bete beharko da.

13. artikulua. BATZORDE KUDEATZAILEAK. LANAK ESLEITZEKO BALDINTZAK

1.- Proposatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren lan tekniko eta obra guztien kontratazioetan eska daitekeen gardentasuna bermatzeko, Kudeaketa Batzordeak eratuko dira, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzaren ordezkari batek, Udalaren ordezkari batek eta jabeen erkidegoen ordezkari batek osatuta.

2.- Egin ez diren jarduketak diruz laguntzen diren kasuetan, eta jabe-erkidegoek birgaikuntza efizientearen proiektuaz eta obra-zuzendaritzaz arduratuko den talde tekniko edo obrak egikaritzeko dituen enpresa kontratatu aurretik, lehiaketa bat egingo da, Kudeaketa Batzordeak onartutako hiru lizitatzailerekin gutxienez. Era berean jardungo da beharrezkoa den beste edozein lan esleitzeko, bai eta obrak egiteko ere.

3.- Kudeaketa-batzordeek kasu bakoitzean balioetsiko dituzte Hurbileko Kudeaketako Bulego Teknikoak profesionalen, talde teknikoaren edo enpresa lizitatzaileren eskaintzak ebaluatzeko egindako baremoak. Ondoren, baremo horiek aplikatzearen ondorioz, proiektua idazteko, obrak zuzentzeko edo obrak gauzatzeko lehiaketa-faseen ondoren, HKTBK lan bakoitzaren esleipen-proposamenaren txostena egingo du, eta Kudeaketa Batzordeak baliozkotuko du.

Kasuren batean zalantzak eta/edo desadostasunak sortzen badira baremoa aplikatzearen emaitzak interpretatzean edo esleipen-proposamenaren txostena idaztean, batzorde kudeatzailearen boto gehienak lortzen dituen lizitatzailerearen alde erabakiko da, ordezkatzan dituzten erakundearen edo erkidegoaren ekarpen ekonomikoaren arabera haztatuta.

4.- Esleipenaren azken proposamena onartu eta berretsi egin beharko da, oinarri hauetan jasotako laguntzak eskuratu nahi dituen jabeekideen erkidego bakoitzeko organo eskudunak onartuz. Organo eskudunak berrespen eta onespren hori ematen ez badu, edo proposamena ez bezalakoa bada, jabeen erkidegoak ezin izango ditu oinarri hauetan jasotako laguntzak eskuratu, eta aurretik jasotako laguntza guztiak itzuli beharko ditu, salbu eta Kudeaketa Batzordearen iritziz proposamenaren desbideratze hori behar bezala egiaztatzen bada.

5.- Ministro Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartutako Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean eta Berroneratze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan ezarritakoa betez, bai eta Espainiako Berroneratze eta Erresilientzia Planaren (CID) ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakian eskatutakoa betez ere, kudeaketa-batzordeek bete egin beharko dituzte 10. eranskinean deskribatutako betebeharrak (BESTE ERAKUNDE PARTE-HARTZAILE BATZUEN BETEBEHARRAK).

I

II. KAPITULUA. OINARRI HAUEK ARABERA DEITUTAKO DIRULAGUNTZAK

14. artikulua. BIRGAITZE ENERGETIKO EFIZIENTEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO JARDUKETAK

1.- Deialdi honen ondorioetarako, birgaitze energetiko efizientetzat hartzen da jarraian adierazten diren jarduketak biltzen dituenak:

a) Berokuntzaren eta hoztearen urteko energia-eskaera globala murriztea lortzeko jarduketak, bai eta lehen mailako energia ez-berriztagarriaren kontsumoa ere, energia-ziurtapenari dagokionez, honako irizpide eta helburu hauekin:

- Energia-eskaria % 35 murriztea, gutxienez, D eremu klimatikoan dauden eraikinetan (Pasaia).
- Lehen mailako energia ez-berriztagarriaren ($\Delta C_{ep,nrenv}$) kontsumoa % 45 edo gehiago murrizten

saiatzea, neurri pasiboekin eta esku-hartze osoan % 60 edo gehiago murriztuta. Kontsumo horren % 30etik beherako murrizketak ezin izango dira aukeratu.

Energia berriztaezinaren kontsumoa murrizteari, berokuntzaren eta hoztearen eskari globala murrizteari eta kalifikazio energetikoa hobetzeari dagokienez, energia-eraginkortasunaren hobekuntza ex ante zein ex post egiaztatuko da, jarduketa egin aurretik eta ondoren eraikin edo etxebizitza bakoitzaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak alderatuz.

Ziurtagiri horiek, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuak arautuak, apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuaren arabera egin behar dira (235/2013 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, Eraikinen eraginkortasun energetikoa egiaztatzeko oinarritzko prozedura onartzen duena, ofizialki onartutako programa informatikoren bat erabiliz), autonomia-erkidegoko organo eskudunean erregistratuta egon behar dira, eta teknikari eskudunek egin behar dituzte. Proiektuek etiketa berde eta digitalerako egiten duten ekarpenaren ehunekoak jaso beharko dira, eta justifikazio-dokumentazioa bidali beharko da, aplikatzekoa den Europako eta Estatuko araudia betetzen dela azpimarratuz.

Nahitaezkoa izango da eraikinaren ingurutzaileren elementu guztietan esku hartzea (fatxadak, estalkia, hegala, patioak...). energia primario berriztaezinaren kontsumoa % 30 edo gehiago murrizteko beharrezkoa izanez gero. Ez dira hautagarriak izango eraikin bereko etxebizitza edo lokal batean edo gehiagotan egindako jarduketak, banaka hartuta.

Esku-hartze horietan ez bada lortzen ezarritako ehunekoaren pareko edo goragoko murrizketarik, baldintza hori betetzat jo ahal izango da, baldin eta esku-hartze horietan egindako jarduketak eta eskaeraren xede den jarduketan egiten direnak batera kontuan hartuta, ezarritako eskaera-murrizketaren ehunekoa lortzen bada. Hori egiaztatzeko, eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Kalifikazio energetikoan lortutako datuen hobekuntza horiek lortzeko, aurreko jarduketa egin ahal izango da, edo jarduera hori guztiz edo partzialki konbinatu ahal izango da honako hauekin:

- 1) Baoak eta horien eta ingurutzailen termikoko elementu opakuekiko elkarguneak aldatzeko edo ordeztzeko jarduketak, horien ezaugarriak Eraikingintzaren Kode Teknikoaren ODko 3.1.1.A – HE1 eta 3.1.3.A – HE1 tauletan ezarritako transmisio termikoaren eta, hala badagokio, airearekiko iragazkortasunaren mugabaliotara egokitzeko.
- 2) Galdara indibidualak errendimendu handiko galdarekin ordeztzea. Erregai fosilak erabiltzen ez dituzten ekipoa instalatzea bakarrik lagundu ahal izango da diruz.
- 3) Biomasa-galdara duten berokuntza-sistemak eta/edo etxeko ur beroaren sistema zentralizatuak edo energia berriztagarrien beste sistema batzuk instalatzea, banakako kontsumoak kontrolatzeko banaketa dutenak.
- 4) Eraikineko energia elektriko fotovoltaikoa ekoizteko sistemak instalatzea, edo autokontsumo partekatuko komunitateak edo tokiko energia-komunitateak eratuz.
- 5) Energia berriztagarriak sortzeko beste edozein sistema instalatzea.

b) Diruz lagundu daitezkeen jarduketan artean sartuko dira aurreko jarduketa guztiak garatzeko beharrezkoak diren gastuak, barnean hartuta jarduketan garapenera datzekion kudeaketakoak eta lotutako gastuak, esku hartzen duten profesionalen ordainsariak, proiektuak idaztekoak eta obra-zuzendaritzakoak, ziurtagiri eta txosten teknikoak, administrazio-izapidetzetik eratorritakoak, okupatzaileak aldi baterako birkokatze jarduketak, gizarte-laguntza eta ERRP garatzeko jarduerekin lotutako antzeko beste batzuk. Lizentzietan, tasei eta BEZaz bestelako zerga edo zergei dagozkienak ez dira diruz lagunduko. Hala ere, BEZa edo zeharkako zerga baliokidea hautagarritzat jo ahal izango dira, baldin eta ezin badira osorik edo zati batean berreskuratu edo konpentsatu.

2.- Goian deskribatutako jarduketak eraikina birgaitzeko proiektu teknikoan sartu beharko dira, jarduketan aurreikusitako gainerako esku-hartzeetatik bereizitako kapituluetan. Proiektu hori jarduketa guztietarako egingo da.

3.- Diruz lagundu ahal izango dira 2020ko otsailaren 1aren ondoren hasitako jarduketak, nahiz eta oinarri eta deialdi hauek argitaratu aurretik eginda eta amaituta egon, betiere deskribatutako esku-hartzeetako bat edo batzuk badira eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badira.

4.- Edonola ere, birgaitzeko esku-hartzeek bat etorri beharko dute aplikatu beharreko hirigintza-planetako preskripzioekin, behar diren administrazio-baimenak izan beharko dituzte, eta aplikatu beharreko 853/2021 Errege Dekretuan jasotako eskakizun guztiak bete beharko dituzte, MITMAren eta EJren xedapenen arabera.

5.- Dagozkion laguntzak esleitzeko jarduketa bakoitzaren kostuak egiaztatu ahal izateko, eta ondoren horiek justifikatzeko, laguntza horiei dagozkien atalak 01 taulan agertzen diren kapitulu eta azpikapituluetan agertu beharko dira:

JARDUERA	AURREIKUSITAKO ZENBATEKOA
ERAIKINAREN EITak edo LIBURUA, BEZa barne	0,00 €
AUDITORETZA ENERGETIKOA, BEZ BARNE	0,00 €
AURRETIKO AURREPROIEKTUAK, BEZ BARNE	0,00 €
AURRETIKO BESTE LAN BATZUK, BEZ BARNE (txostenak, ikerketa geoteknikoak,...)	0,00 €
AURRETIAZKO LANAK, GUZTIRA (1. programarekin diruz laguntzeko modukoak)	0,00 €
E.E. PASIBOAK, BEZ barne (INGURATZAILEA+ %C. Cal.+ %Resid.+ % Segur.+% M.Aux)	0,00 €
E.E. AROTZERIA, BEZ barne (Arotzeria+ %C. Cal.+ %Resid.+ % Segur.+% M.Aux)	0,00 €
E.E AKTIBOAK, BEZ barne (Galdarak+ + %C. Cal.+ %Resid.+ % Segur.+% M.Aux)	0,00 €
E.E BERRIZTAGARRIAK, BEZ barne (FOTOBOLTAIKOAK+ %C. Cal.+ %Resid.+ % Segur.+% M.Aux)	0,00 €
ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA, GUZTIRA (1. programaren baitako dirulaguntza jaso dezakeena)	0,00 €
KOMUNITATE ENERGETIKOA	0,00 €
ENERGIA BERRIZTAGARRI KOLEKTIBOAK, GUZTIRA (1. programaren baitako dirulaguntza jaso dezakeena)	0,00 €
BIRGAITZEAREN ORDAINSARIAK, GUZTIRA, BEZ barne (proiektuqa+D.F.) (aurreko atalen zati proportzionala)	0,00 €
KUDEAKETAREN ORDAINSARIAK, BEZ barne (birgaitzearen administrazioaile, kudeatzailea) (aurreko atalen zati proportzionala)	0,00 €
BIRGAITZE ENERGETIKOAREN ORDAINSARIAK, GUZTIRA (1. programaren baitako dirulaguntza jaso dezakeen zati proportzionala)	0,00 €
1. PROGRAMAKO DIRULAGUNTZA JASO DEZAKEEN BIRGAITZE ENERGETIKOA, GUZTIRA (1. programako dirulaguntza jaso dezakeena)	0,00 €

01. taula: 1. programako funtsekin diruz lagundu daitezkeen Birgaitze Energetiko Eraginkorrari dagozkion Proiektuaren kapituluak eta azpikapituluak.

15. artikulua. JABEEN ERKIDEGOENTZAKO LAGUNTZAK, ERAIKINEKO ENERGIA PRIMARIO BERRIZTAEZINAREN KONTSUMOA MURRIZTEKO JARDUERETAN

1.- Laguntza horiek eskatzeko behar den dokumentazioa prestatzen lagunduko die partikularrei HKBTk, oinarri hauen eta 853/2021 Errege Dekretuaren "Auzo mailako birgaitze-jarduketarako 1. laguntza-programaren" arabera.

2.- Berokuntzaren eta hozte-sistemaren urteko energia-eskari orokorra eta energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa murriztera bideratutako jarduketa guztiak barne hartuko dira, oinarri hauetako a) puntuan deskribatutako ziurtagiri energetikoari dagokionez.

3.- Eraikin bakoitzeko eman daitekeen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak ezingo ditu muga hauek gainditu:

2. taulan ezarritako gehieneko ehunekoa eta diruz lagundu daitezkeen jarduketaren kostua biderkatuz lortzen den zenbatekoa.
2. taulan etxebizitza bakoitzeko ezarritako laguntzaren gehieneko zenbatekoa eraikineko etxebizitza kopuruarekin biderkatuta lortzen den zenbatekoa, gehi, hala badagokio, merkataritza-lokalen etxebizitzaz bestelako erabileren sestra gainean eraikitako azaleraren metro karratu bakoitzeko laguntzaren zenbatekoa, jarduketaren bidez energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoan lortutako aurrezpen-mailaren arabera. Merkataritza-erabilerako edo beste erabilerara batzuetako sestra gaineko metro koadro bakoitzeko ezarritako zenbatekoa zenbatu ahal izateko, kasuan kasuko lursailek jarduketaren exekuzio-kostuetan parte hartu beharko dute.

Jarduketarekin lortutako energia-aurrezpena	Jarduketaren kostuaren dirulaguntzaren gehieneko ehunekoa	Etxebizitza	Merkataritza-lokalak edo beste erabilerara batzuk
		Laguntzaren gehieneko zenbatekoa etxebizitza bakoitzeko (eurotan)	Laguntzaren gehieneko zenbatekoa m ² bakoitzeko (eurotan)
$\Delta C_{ep,nren} \geq 30\% \text{ y } < 45\%$	% 40	8.100	72
$\Delta C_{ep,nren} \geq 45\% \text{ y } < 60\%$	% 65	14.500	130
$\Delta C_{ep,nren} \geq 60\%$	% 80	21.400	192

2. taula

4.- Adierazitako laguntzen gehieneko zenbatekoak zehazteko, kontuan hartu ahal izango dira 6. Artikuluan (OHAR OROKORRAK) adierazitako eta behar bezala egiaztatutako kostu guztiak, BEZa edo zeharkako zerga baliokidea barne, osorik edo partzialki berreskuratu edo konpentsatu ezin direnean.

5.- Banakako galdaren orde ez errendimendu handiko gas naturaleko edo berriztagarria ez den beste energia-iturri bateko galdarak jartzea ezin izango da diruz lagundu 853/2021 Errege Dekretuaren funtsekin, baina birgaitu ondoren eraikinaren energia-ziurtagiaren bidez lortutako energia-aurrezpenari egiten dion ekarpena zenbatuko da.

16. artikulua. AURRETIAZKO AZTERLANAK ETA PROIEKTU TEKNIKOAK

1.- Atal honetan, gehieneko zenbatekoen barruan, honako lan hauek lagunduko dira diruz:

- Eraikinaren txosten teknikoak (EIT) eta/edo eraikinaren liburuak idaztea
- Auditoretza Energetikoa eta Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriak
- Aurretiko aurreproiektuak
- Birgaitze integrala gauzatzeko proiektuak idaztea eta obraren zuzendaritza fakultatiboa.

2.- Aurretiazko azterlan eta proiektu tekniko horietarako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa honako hau izango da:

- 1) Energia-auditoretzetarako eta aurretiazko aurreproiektuetarako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa %

100ekoa izango da, 3.500 €-ko mugarekin (BEZa barne) energia-auditoretzetan, eta 15.700 €-koa (BEZa barne) aurreproiektuetan.

- 2) Birgaitzeko dagoen eraikinaren liburuatarako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa:
 - a) 20 etxebizitza arteko familia anitzeko eraikinen kasuan: 700 euro, gehi 60 euro etxebizitza bakoitzeko. Eraikinaren Ikuskapen Teknikoa, Eraikinaren Ebaluazio Txostena edo antzeko dokumenturik ez badago, laguntza % 50eraino handitu ahal izango da.
- 3) Eraikinen birgaitze integralerako proiektu teknikoaren kasuan:
 - a) 20 etxebizitza arteko familia anitzeko eraikinen kasuan: 4.000 euro, gehi 700 euro etxebizitza bakoitzeko.
- 4) Eraikinen birgaitze integralerako obra-zuzendaritza fakultatiboaren kasuan:
 - a) 20 etxebizitza arteko familia anitzeko eraikinen kasuan: 8.000 euro, gehi 1.400 euro etxebizitza bakoitzeko.
- 5) Laguntzaren zenbatekoak ezingo du inolaz ere kostu osoa gainditi, zergak alde batera utzita. Hala ere, BEZa edo zeharkako zerga baliokidea hautagarritzat jo ahal izango dira, baldin eta ezin badira osorik edo zati batean berreskuratu edo konpentsatu.
- 6) 2020ko otsailaren 1aren ondoren idatzitako dokumentuek dirulaguntza jaso ahal izango dute, baldin eta Kudeaketa Batzordeak onartuak badira edo onartu baditu, 13. artikuluan adierazten den bezala (KUDEAKETA BATZORDEAK. LANAK ESLEITZEKO BALDINTZAK).

3.- Dokumentuak idazteko data egiaztatzeko, dirulaguntzaren xede den dokumentazioa erregistro ofizialetan sartzen den lehen eguna hartuko da kontuan.

IV. KAPITULUA DIRULAGUNTZEN PROZEDURA, IZAPIDETZEA ETA ORDAINKETA

17. artikulua. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA, EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA.

1.- Pasaia Udalaren egoitza elektronikoa bide telematikoz aurkeztutako eskabidearen bidez hasiko da laguntzak emateko prozedura. Laguntzak eraikinaren jabe bakarrak edo jabeen erkidegoaren ordezkariak izapidetu beharko ditu, jabetza horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legean ezarritako baldintzetan, edo, bestela, behar bezala egiaztatutako erkidegoaren ordezkari batek.

2.- Aurreikusitako laguntzak Udalaren egoitza elektronikoa deialdia argitaratzen den egunetik aurrera eskatu ahal izango dira, **10 laneguneko epean**. Eskabidearekin batera, dirulaguntzen onuradun izateko beharrezkoak diren baldintzak eta betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera. Ez da beharrezkoa izango oinarri hauetan eskatzen den dokumentazioa aurkeztea, baldin eta lehenago entregatu bada (Jabeen Erkidegoentzako Birgaitze Sakoneko Programan).

3.- Eskabidea eta dokumentazioa aurkezteak berekin dakar urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan eta oinarri hauetan ezarritako oinarriak baldintzarik gabe onartzea. Era berean, interes-gatazkarik ez dagoela adierazten duen adierazpena aurkeztu beharko da, oinarri hauen I. eranskinean jasotako ereduaren arabera (BETE BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEN EREDUAK).

4.- Laguntza-eskaeran, eskatzaileak baimena eman ahal izango dio, berariaz, izapideak egiteko eta ebazpena emateko eskumena duen organoari, behar den informazio guztia biltzeko, bereziki, betekizunak betetzen direla egiaztatzeko legez beharrezkoa den zerga-informazioa edo informazio ekonomikoa. Ezin izango zaie hirugarrenei laga jasotako zerga-informazioa edo informazio ekonomikoa.

5.- Oinarri hauetan kontuan hartutako laguntza guztietarako, prozeduraren instrukzioa Pasaia Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Sailak egingo du.

6.- Dirulaguntza emateko ebazpena Pasaia Udalbatzak emango du.

7.- Laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena eta obra-lizentzia **hilabete bateko epean jakinaraziko dira** (dirulaguntzak eskatzeko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera hasita). Epe horretan ebazpenik jasotzen ez bada, eskaera ezetsizat joko da, hargatik eragotzi gabe espresuki ebazteko betebeharra. Hartutako ebazpenaren aurka errekurtsioa jarri ahal izango da.

Administrazio-ebazpena baiestekoa bada, honako hauek adierazi beharko dira: jabeen erkidegoen izena edo izen soziala, IFK edo NANA; finantzatutako jarduketa; itzuli beharrik gabeko dirulaguntzaren zenbatekoa, diruz lagundutako jarduketan arabera banakatuta eta aurrekontu-urtekoen arabera banatuta; eta obrak egiteko epea. Ukatutako eskabideen kasuan, eskatzaileen izena edo izen soziala, IFK eta ukatzeko arrazoiak adieraziko dira. Nolanahi ere, ebazpenak eskatzaileari jakinaraziko zaizkio.

8.- Onuradunei laguntzak eta dirulaguntzak ematea eta, hala badagokio, ordaintzea, nahitaez lotuta egongo dira oinarri hauen xede diren "eraikinen birgaitze energetikorako" jarduketan finantzaketarekin. Nolanahi ere, laguntza horiek jabeen erkidegoaren kontu korrante irekian ordainduko dira.

9.- Onuradunek **15 egun naturaleko epea** izango dute dirulaguntzari uko egiteko, dirulaguntza emateko erabakia jakinarazten den unetik aurrera. Onuradunek dirulaguntza onartu dutela ulertuko da, baldin eta lehen aipatutako epean berariaz uko egiten diotela adierazten ez badute. Aurrerakina eskatu bada, epe horretan bertan itzuli beharko da aurrerakin gisa jasotakoa.

10.- Obrak 2025eko apirilaren 30erako amaitu beharko dira.

11.- Jabe-erkidegoek dirulaguntza ematea eragin zuen helburua bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla justifikatzeko epea bi hilabetekoa izango da, obraren amaiera-egunetik zenbatzen hasita, eta epe horrek ez du inolaz ere gaindituko 2025eko akainaren 30a.

18. artikulua. DIRULAGUNTZA-ESKAERARI ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- Jabekideen erkidegoaren ordezkariak izapidetu beharko ditu laguntzak, Pasaia Udalaren egoitza elektronikoan horretarako dauden ereduaren arabera. Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Auzoa birgaitzeko jarduketetarako **laguntza-programan sartzeko akordioa eta dirulaguntzen eskaria** (E133) **aurkezteari** dagokionez (Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 1. programa, NextGenerationEU, oinarri hauetan jasotakoa):
 - a) Eskatzailearen datuak, abizenak eta izen soziala edo IFK/IFZ adierazita. Eskatzailea birgaitzearen agente edo kudeatzaile bat bada, halakotzat jarduteko ahalmena eta baimena ematen dion laguntzen azken onuradun(ar)en erabakia aurkeztu beharko du.
 - b) Hala badagokio, ordezkariaren datuak, abizenak, izena eta IFZ adierazita, bai eta duen ordezkartzaren egiaztapena ere, aplikatzeko den araudi espezifikoaren arabera.
 - c) Jabekideen erkidegoen kasuan, idazkariaren edo administratzailearen akta edo ziurtagiria, dirulaguntza eskatzeko baimendutako ordezkariaren izendapena jasotzen duena.
 - d) Jabeen Erkidegoaren, haren ordezkariaren edo, hala badagokio, higiezinaren jabea den pertsona juridikoaren Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ).
 - e) Emandako laguntza sartuko den Jabeen Erkidegoaren edo Mankomunitatearen banku-kontuaren titulartasunaren ziurtagiria. (E134)
 - f) Programan sartzeko eta dirulaguntzen eskaria egiteko erabakiaren akta, erkidegoarena, behar bezala taldekatutako jabeen erkidegoena edo kooperatibaren batzarrarena.
 - g) Jarduketan xede den eraikineko etxebizitzaren eta, hala badagokio, lokalen deskribapena, kasuan kasu, azalera eraikiak eta katastroko erreferentziak barne.
 - h) Birgaitzeko dagoen eraikinaren liburua edo, halakorik ezean, eraikina edo etxebizitza hobetzeko potentzialari buruzko azterlan bat, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legean zehaztutako oinarritzko betekizunei dagokienez, eta jarduketa-plan bat, proposatutako jarduketa eta hobekuntza identifikatzeko.

- i) Eraikinaren birgaikuntza efizienterako proiektu teknikoa, jarduketan deskribapenarekin, sartutako atalen arabera xehatuta.
- j) Proiektuan, DNSH printzipioa betetzen dela justifikatuko duen jarduketa-memoria espezifikoa bat sartuko da, bai eta segurtasun- eta osasun-azterlana, hondakinak kudeatzeko programa eta kalitatea kontrolatzeko plana ere.
- k) Lehendik dagoen eraikinaren edo etxebizitzaren energia-efizientziaren ziurtagiria, kasu bakoitzean dagokionaren arabera, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuan eskatutako edukiarekin, teknikari eskudunak sinatuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren erregistroan erregistratuta.
- l) Aurreikusitako energia-efizientziaren ziurtagiria, proiektuan edo justifikazio-memorian jasotako jarduketak barne, eraikinaren edo etxebizitzaren egungo egoeraren energia-efizientziaren ziurtagirirako erabilitako ziurtapen-programa berarekin egina, teknikari eskudunak sinatuta.
- m) Eskatutako laguntza guztien zerrenda, ehunekoa eta zenbatekoak, lehen adierazitako aurrekontu-banakapenaren arabera.
- n) Azken hartzaileak dirulaguntzaren onuradun izango dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharren ondorioetarako, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun izateko debekuen eraginpean ez daudela egiaztatuko dute, artikulua horretako e) idatz-zatian jasotako debekuen izan izan ezik, zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzeko betebeharrari buruzkoa dena.
- o) Laguntzen azken hartzaileak pertsona juridikoak direnean, berariaz egiaztatu edo adierazi beharko dute eskaeran behar bezala erata daudela, aplikatu beharreko araudiaren arabera. Nortasun juridiko propiorik ez duten entitateen kasuan, jabeen erkidegoak izan ezik, eskabidean zein emakida-ebazpenean berariaz jaso beharko dira elkarteko kide bakoitzak bere gain hartutako exekuzio-konpromisoak, bai eta horietako bakoitzak aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere. Edonola ere, taldearen ordezkari edo ahalduz bakar izendatu behar da, eta horrek behar besteko boterea izango du.
- p) 8. artikuluan (LAGUNTZEN AZKEN ONURADUNEN BETEBEHARRAK) zerrendatzen den eta eskabidearekin batera aurkeztu behar den dokumentazio guztia. Bereziki, egokitzapenaren aldeko ebaluazioa edo, hala badagokio, «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, Berroneratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 2. artikulua 6. atalean ezarritakoaren arabera.
- q) I. ERANSKINA.- BETE BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEN EREDUAK.

2.- Dokumentazio hori aurkezteak oinarri hauek baldintzarik gabe onartzea dakar.

3.- HKBTK behar beste aldiz erantzungo du eta egiaztatuko du aurreko dokumentazioa, bai eta oinarri hauetan eta koordinatu beharreko beste edozeinetan aurreikusitako dirulaguntzen eskaerak egiteko kasuan kasuko erakunde eskudunek eskatzen dutena ere.

19. artikulua. JASOTAKO LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTAZIOA.

1.- Laguntzen azken hartzaileek jarduerak gauzatu direla justifikatu beharko dute instrukzio-organoren aurrean, eta, horretarako, oro har jarraian agertzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute, hargatik eragotzi gabe hurrengo deialdietan eska dezaketzen dokumentazio osagarria:

- a) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla **justifikatuko jarduketa-memoria**, oinarri hauetan eta laguntza emateko ebazpenean eskatutakoaren arabera, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Eskumena duen teknikari tituludun batek egin eta sinatuko du memoria hori, eta jarduketan amaiera-data ere adieraziko du. Bertan, nahitaez bete beharreko araudia betetzen dela adieraziko da.
- b) **Justifikazioko kontuaren jakinarazpena**, horretarako eskuragarri dagoen ereduaren arabera.

- c) **Aurretik aurkeztu ez diren obra-exekuzioen fakturak.**
- d) **Obren amaierako ziurtagiria**, obren zuzendari fakultatiboak emana eta sinatua.
- e) EITan identifikatutako patologiak eta kalteak **zuzentzeko ziurtagiria**.
- f) **Eraikinaren edo etxebizitzaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria**, jarduketak egin ondoren lortua, esku-hartzearen aurreko ziurtagirirako erabilitako ziurtapen-programa onartu berarekin egina, teknikari eskudunak sinatua, laguntza lortzeko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena, eta autonomia-erkidegoko organo eskudunaren erregistroan erregistratua.
- g) **Instalazio termikoaren ziurtagiria, hala badagokio**, instalazioaren zuzendariak edo instalatzaile baimenduak sinatua, eta autonomia-erkidegoko organo eskudunaren erregistratua, RITEren arabera.
- h) Hala badagokio, jasogailua **RAEn alta** emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, 88/2013 Errege Dekretuak segurtasun-arloan ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzen duena.
- i) **Gauzatutako obren argazki-dokumentazioa**, ahal dela koloretan.
- j) **Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuk zehazten dituen ziurtagiria edo erantzukizunpeko adierazpena**, zenbatekoak eta jatorria adierazita. Ziurtagiri edo adierazpen hori jabe-erkidegoaren lehendakariak edo, hala badagokio, erkidegoaren idazkariak edo administratzaileak egin beharko du. Hala badagokio, etxebizitzaren titularraren edo titularren erantzukizunpeko adierazpena.
- k) **Jarduketa-memoria**, teknikari eskudunak sinatua, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena. Baldintza horien artean dago ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa (DNSH) betetzea, hondakinen eta zirkulartasunaren arloan ezarritako betekizunekin bat etorriz.

20. artikulua. DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEKO MODUA.

1.- Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak alkatetzaren ebazpen bidez ordainduko dira, organo instrukzio-egileak proposatuta, jarduketa bakoitzari dagozkion ataletan eskatutako egiaztariak aurkeztu eta, hala badagokio, egiaztatu ondoren. Ebazpen horretan, funtsen jatorria berariaz aipatuko da.

2.- Onartutako laguntzak kontu jakin batean jasoko dira banku-transferentzia bidez, eta eraikina modu efizientean birgaitzera bideratuko dira soilik. Pertsona edo erakunde onuradunak kontu hori baliozkotuko du, eta, funtsak askatu ahal izateko, dagokion hirugarrenaren alta egin beharko du.

21. artikulua. DIRU-LAGUNTZAK ORDAINTZEKO SEKUENTZIA.

1.- Dirulaguntzen ordainketa honako sekuentzia eta prozeduraren arabera egingo da.

- Lehenengo ordainketa, ebazpenean emandako zenbateko osoaren % 20koa, eskabidea aurkeztu ondoren egingo da, horretarako dagoen ereduaren arabera (E135), eta honako agiri hauek erantsiko zaizkio:
 - Aldez aurreko proiektuak eta azterlanak idazteko ardura duten enpresekin eta obra gauzatzeko ardura duten enpresekin egindako kontratua edo kontratuak, dirulaguntzaren xede diren obra guztiak gauzatu direla bermatzeko.
- **Bigarren ordainketa**, emandako dirulaguntzaren **zenbatekoaren % 10ekoa**, horretarako dagoen ereduaren arabera (E135) eskabidea aurkeztu ondoren ordainduko da, eta honako agiri hauek erantsiko zaizkio:
 - Jarduketen gauzate-zenbatekoaren % 10, gutxienez, estaltzen duten fakturak. Faktorekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- **Hirugarren ordainketa**, emandako dirulaguntzaren **zenbatekoaren % 15ekoa**, horretarako dagoen ereduaren arabera (E135) eskabidea aurkeztu ondoren ordainduko da, eta honako agiri hauek erantsiko zaizkio:
 - Jarduketen gauzate-zenbatekoaren % 25, gutxienez, estaltzen duten fakturak. Faktorekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

- **Laugarren ordainketa, emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 15ekoa**, horretarako dagoen ereduaren arabera (E135) eskabidea aurkeztu ondoren ordainduko da, eta honako agiri hauek erantsiko zaizkio:
 - Jarduketan gauzatze-zenbatekoaren % 50, gutxienez, estaltzen duten fakturak. Fakturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- **Bosgarren ordainketa, emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 10ekoa**, horretarako dagoen ereduaren arabera (E135) eskabidea aurkeztu ondoren ordainduko da, eta honako agiri hauek erantsiko zaizkio:
 - Jarduketan gauzatze-zenbatekoaren % 75, gutxienez, estaltzen duten fakturak. Fakturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

3.- Gainerako zenbatekoa justifikazio-kontua egiaztatu eta onartu ondoren ordainduko da, hurrengo atalean adierazten den bezala.

4.- Inola ere ez dira ordainduko fase bakoitzean justifikatutako zenbatekoak baino handiagoak.

22. artikulua. AKATSAK EDO OMISIOAK ZUZENTZEA.

1.- Aurkeztutako eskabidean akats, zehaztasun falta edo omisioren bat atzematen bada, instrukzio-organoak modu frogagarrian jakinaraziko dio eskatzaileari, eta hamar eguneko epea emango dio hori zuzentzeko, konpontzeko edo ekarpenak egiteko. Hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, prozeduraren instrukzio-organoak ebazpena eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- Eskabidea formatu ofizialean aurkezten ez bada, edo eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, eta zuzentzeko emandako epea igaro bada, eskatzaileak atzera egin duela ulertuko da.

23. artikulua. ERREKURTSOAK.

1.- Udaltzak dirulaguntzak emateko hartzen duen erabakia prozedura amaitzekotzat joko da, eta amaiera emango dio administrazio-bideari. Erabaki horren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin bat etorritik. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean, bi hilabeteko epean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

V. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK, JARRAIPENA ETA ITZULKETA

24. artikulua. JARRAIPENA, KONTROLA ETA EBALUAZIOA. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

1. – Ezarritako baldintzak betetzen direla eta oinarri hauetan araututako laguntzak emateko egintzan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan eta hura garatzeko erregelamenduaren 72. eta 75. artikuluetan ezarritako prozedurak erabiliko dira, eta aplikagarriak izango dira Legegintzako Errege Dekretuaren 63. artikuluan aurreikusitako neurri bereziak. 36/2020 Dekretua, abenduaren 30ekoa, eta, hala badagokio, Europar Batasunean aplikatzekoa den araudia.

2.- Jabe-erkidegoek honako hauek bete beharko dituzte: dirulaguntza eman duen administrazioak egindako egiaztapen-jarduketak, Kontu-hartzailatza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolako jarduketak, hala badagokio, eta Kontu

Auzitegiaren legerian aurreikusitakoak.

3.- Era berean, Berroneratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak eta, zehazki, 853/2021 Errege Dekretuaren “Auzo mailako birgaitze-jarduketegi laguntzeko 1. programa” delakoak araututako dirulaguntzek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Europako Erkidegoetako Batzordeak eta Kontu Auzitegiak, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoak, Auditoretzako Bulego Nazionalak eta, bidezkoa denean, Europako Fiskaltzak egin ditzaketen egiaztatze-lanak beteko dituzte.
- Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planerako ezartzen diren jarraipena, kontrola eta ebaluazioa egingo zaie; halaber, bete egin beharko dituzte EBren Berroneratze eta Erresilientzia Mekanismoerako ezartzen diren berariazko betebeharrak, bai barne-araudiak eta bai Europar Batasunak ezarritakoak, informazioari eta publikitateari, kontrolari, egiaztapenari, jarraipenari, ebaluazioari dagokienez, horien aplikazioa nahitaezkoa bada.
- Zehazki, Administrazio emaileek, Berroneratze eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzera bideratutako neurriak dagokienez, datuen kategoria harmonizatuak jasoko dituzte formatu elektronikoan, funtsen auditoretza egin eta horien erabilera kontrolatze aldera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22.2.d) artikuluan zehazten denarekin bat etorritz.
- Erakunde onuradunek frogagiriak eta finantzaketari dagokion gainerako dokumentazioa gorde beharko dituzte, formatu elektronikoan, eragiketa egiten denetik bost urtez, edo, dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa bada, hiru urtez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 132. artikuluan aurreikusten denari jarraikiz.

25. artikulua. LAGUNTZEN BALDINTZAK ALDATZEA

1.- Jarduketaren titularra pertsona fisikoa bada, laguntzak onartu dizkion administrazio-ebazpena eman ondoren ordeztzen bada, hura baliogabetu egingo da, eta jarduketaren titular berriaren aldeko ebazpena emango da, aurreikusitako baldintzak betetzen baditu, salbu eta Jabeen Erkidegoaren ordezkariaren kasuan; kasu horretan, eskaera aurkezteko baimena eman zion kargua duen pertsonak ordezkatu du.

2.- Laguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketa oro, betiere laguntzen xedea betetzat jotzen bada, eta, hala badagokio, aldi berean beste edozein erakunde publiko nahiz pribatutatik laguntzak edo dirulaguntzak jaso badira, aldeztu jakinarazi beharko zaio laguntza emateko ebazpena emateko eskumena duen organoari, hark berariaz onar dezan, eta, horren ondorioz, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da.

Horretarako, organo eskudunak dagokion aldaketa- edo likidazio-ebazpena emango du. Ebazpen horretan, emandako laguntzen zenbatekoa egokituko da, laguntza ematerakoan ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuz, eta, hala badagokio, jabe-erkidego onuradunak jasotako gehiegizko zenbatekoa itzuli beharko du. Laguntzak doituak ez du inolara ere ekarriko hasierako ebazpenean emandakoa baino zenbateko handiagoa aitortzea.

3.- Aurkeztutako dokumentazioaren azterketak erakusten badu energia primario berriztaezinaren kontsumoan aurreztutakoa hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa dela eta eskatutako gutxienekoa baino handiagoa dela, kontzeptu horrengatik emandako laguntza publikoak beherantz aldatuko dira.

4.- Aurkeztutako dokumentazioaren azterketak erakusten badu energia primario berriztaezinaren kontsumoan aurreztutakoa hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa dela eta eskatutako gutxienekoa baino txikiagoa dela, itzuli egin beharko dira kontzeptu horrengatik emandako laguntza publikoak.

5.- Era berean, aurkeztutako dokumentazioaren azterketak erakusten badu energia primario berriztaezinaren kontsumoan aurreztutakoa hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa dela eta eskatutako gutxienekoa baino handiagoa

dela, kontzeptu horrengatik emandako laguntza publikoak gorantz aldatuko dira.

6.- Aldaketak ez du inola ere eraginik izango jarduketaren izaeran, eta ez dakar dagokion laguntza ematea justifikatu zuten baldintzak ez betetzea ere.

7.- Obrek dirauten bitartean, eta jada aurrekontuan sartutako kontzeptuen barruan, partiden kostua beherantz aldatzen bada, emandako ebazpena aldatu egingo da, baldin eta aurrekontu babesgarria edo diruz lagun daitezkeen kostuak murrizten badira. Orohar zenbatetsiko da hori, eta, ondorio horietarako, gutxitze-ebazpen bat eman ahal izango da.

8.- Nolanahi ere, obrak egiten ez badira, eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada edo laguntzak jasotzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez badira, laguntzak baliogabetu egingo dira, eta jasotako zenbateko guztiak itzuli beharko dira.

26. artikulua. EZ BETETZEA, ETA JASOTAKO DIRULAGUNTZAK ITZULTZEKO PROZEDURA.

1.- Onuradunek honako hauek egin dituztela egiaztatzen bada:

- Dirulaguntza eskatu eta eman zen helburu zehatzerako ez erabiltzea.
- Dirulaguntza eragin zuen jarduketa ez egikaritzea.
- Interesatzen zitzaien helburu zehatzetarako erabili izana ez justifikatzea.
- Dirulaguntza ematea eragin zuten baldintzak ez betetzea.
- Ikuskapen-lana ez ahalbidetzea.
- Ez betetzea onuradunei Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako betebeharrak, edo epez kanpo betetzea, baldin eta baldintzak edo epea osorik betetzea erabakigarria bada lortu nahi den helburu publikoa lortzeko.
- 28. artikuluan (BIDEGABEKO ESLEIPENETAN LAGUNTZAK ITZULTZEA) aurreikusitako inguruabarrak gertatzea.

Kasu horietan, interesdunari entzun ondoren, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela adieraziko da, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Udaleko Diruzaintza Nagusira itzuli beharko dira, arau hauekin bat etorriz: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena.

2.- Administrazioiko zerbitzuek egindako finantza-egiaztapen edo –kontrolen batean agerian geratzen bada egindako gastu guztiak edo batzuk ez direla ordaindu, dirulaguntza kobratu ondoren, eta hartzekodunek eskatu ahal izango dituztela; itzulketa eskatuko da, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz, eta, horretarako, dirulaguntza itzulgarritzat joko da, ordaindu gabeko gastuen proportzioan.

3.- Era berean, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gaineratik lortutako soberakina itzuli beharko da, eta horrek berekin dakar dirulaguntzen arloan aplikatzekoa den berandutze-interesa exijitzea.

27. artikulua. IRUZURRAREN, USTELKERIAREN ETA INTERES-GATAZKEN ARRISKUA PREBENITZEA

1.- Betiere, onuradunak hautatzeko prozesuan edo baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozesuetan parte hartzen duten pertsonak betebeharrak hauek izango dituzte:

2.- Adieraziko dute osorik eta erreserbatik gabe ezagutzen eta onartzen dutela Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko Erabakiaren bidez onartutako plan hau: «Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako, interes-gatazkaren aurkako, finantza-ketari eta estatu-laguntzei buruzko eta ingurumenari kalte ez-esanguratsua egiteko baldintzei erantzuteko neurrien plana».

Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako, iruzurraren aurkako neurrien plana ezagutzera eta onartzera behartuta egongo dira, nolana ere, dirulaguntza emateko eskumena duen organoaren arduraduna, dirulaguntzaren oinarriak eta/edo deialdia idazten dituzten langileak, eta eskabideak ebaluatzen dituzten adituak eta batzordekideak, baita Administrazioari jarduketa horietan laguntzen eta aholkatzen dioten erakunde pribatueta pertsona fisiko guztiak ere.

3.- Atal honen aurreko puntuetan aipatutako pertsonak Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) beteko dute oinarri hauekin batera doan ereduaren arabera (I. ERANSKINA.- BETE BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEN EREDUAK), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 61.3 artikuluan eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.

4.- Interes-gatazka eragin dezakeen arazoiren bat duten agintariek eta langileek ez dute esku hartuko eragindako prozeduretan. Interes-gatazka bat egoteko aukera aztertzen denean, eragindako pertsonak idatziz jakinaraziko dio egoera hierarkian gorago dagoenari, eta kasuan kasuko zerbitzu juridikoek txosten bat egingo dute, kasuan kasuko erabakia hartzeko.

5.- Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, bere kabuz edo IGA Erekin lankidetzan (III. maila), auditoria espezifikoak egin ahal izango ditu, interes-gatazka prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko neurri egokiak dauden jakiteko.

Behin interes-gatazka bat antzemanda, kasu bakoitzean aplikatu beharreko legezko arauen eta barne-erregelamenduen arabera neurriak hartuko dira. Era berean, interes-gatazkari publikitate eman beharko zaio beti, gardentasun-printzipioa betetze aldera.

28. artikulua. LAGUNTZAK ITZULTZEA, ESLEIPEN BIDE GABEEN KASUAN.

1.- Esleipen-proposamenaren txostenean adierazitakoa ez den beste edozein lizitatzailerari esleitzuz gero, 13. Artikuluan azaltzen den moduan (KUDEAKETA BATZORDEAK. LANAK ESLEITZEKO BALDINTZAK), prozedura baliogabetu ahal izango da, eta administrazioek ordura arte ordaindutako dirulaguntza guztiak itzultzeko eskatu ahal izango dute, aurreko atalean adierazi den bezala.

29. artikulua. DNSH PRINTZPIOA EZ BETETZEAGATIK LAGUNTZAK ITZULTZEA.

DNSH printzipioa, klima-etiketatzaren printzipioa edo oinarri hauen 8. Artikuluan (LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEEN BETEBEHARRAK) jasotako baldintzak betetzen ez badira, onuradunak ordura arte jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako moduan (698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen).

30. artikulua. JABEEN ERKIDEGOARI EMANDAKO LAGUNTZAK ITZULTZEA, ELEMENTU PRIBATIBOAK INTER VIVOS BORONDATEZ ERABILTZEGATIK.

1.- Emandako laguntzak itzuliko direla eta birgaitze-proiektua garatzen ekinga publikoak sortutako gainbalioetan Administrazioak parte hartuko duela bermatzeko, jabeen erkidegoak elementu pribatiboengatik (Jabeen Erkidegoan duen partaidetza-kuotaren arabera) jasotako dirulaguntzen zati proportzionala Udalarari itzultzeko betebeharra ezartzen da, diruz lagundutako eraikina osatzen duten etxebizitzak edo higiezineta elementuak inter vivos eskualdatuz gero.

2.- Birgaitzeko dirulaguntzen xede diren higiezinak ezin izango dira inter vivos borondatez eskuragarri egon 10 urteko epean, obra-amaiera ziurtatzen denetik zenbatzen hasita, baldin eta saltzaileak ez badu alde aurretik egiaztatzen eskualdatzen den elementuari egotz dakizkiokeen jasotako laguntzak itzuli dituela, horiek itzultzeko unean 3. Taulan (itzulketaren oinarria) jasotako ehunekoaren arabera eguneratuta.

Arestian aipatutako ondorioetarako, ez da eskualdaketatzat hartuko etxebizitza osoa titularkide bati esleitzea ezkontza-

banantzeen, dibortzioen edo izatezko bikoteen hausturen eta/edo bizikidetzaren hausturen ondorioz, lehen mailako odolkidetasunez lotutako kideen kasuan.

3.- Etxebizitzen eta lokalen titularrek dirulaguntza eman izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute dagokion Jabetza Erregistroan. Bertan, administrazio-agiri hori ikusi ondoren, hipoteka-legeriaren arabera egokia den jabariaren erabilera-mugapenaren erregistro-idazpena egingo da.

4.- Itzulketa hori obrak gauzatzeko prozesuan zehar gertatzen diren inter vivos eskualdaketen kasuan ere gauzatu beharko da.

5.- Jasotako laguntza irizpide hauen arabera itzuliko da:

- Ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzen edo norberaren konturako jarduerari atxikita ez dauden lokalen titular diren pertsona fisiko edo juridikoez dirulaguntza eman izanaren ziurtagiriaren balioaren % 100 itzuli beharko dute, bai proiektua egikaritu bitartean gauzatzen bada (laguntza emateko behin-behineko ebazpenaren ondoren), bai obren amaierako ziurtagiria eman ondorengo hamar urteetan gauzatzen bada.
- Etxebizitza eta lokalen gainerako titularrek, inter vivos eskualdatuz gero, laguntza ekonomikoa eman izanaren ziurtagiriaren balioaren ehuneko bat itzuli beharko dute, hain zuzen ere 3. taulan (itzulketaren oinarria) jasotakoa:

ESKUALDATZE-DATA	ITZULKETAREN EHUNEKOA
Obra egiten den bitartean edo lehenengo urtean	100
Bigarren urtean	91
Hirugarren urtean	82
Laugarren urtean	73
Bosgarren urtean	63
Seigarren urtean	53
Zazpigarren urtean	43
Zortzigarren urtean	33
Bederatzigarren urtean	22
Hamargarren urtean	11
Hamargarren urtetik aurrera	0

3. taula Itzulketa-oinarria

6.- Itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, jabeen erkidegoari emandako laguntza hartuko da oinarritzat, eta horri eskualdatutako elementuaren komunitateko partaidetza-kuota aplikatuko zaio, bai eta igarotako denborari dagokion itzulketa-taulako ehuneko ere.


7.- Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko sarrerak izango dira, eta betearazpen-bidez eskatu ahal izango dira.

31. artikulua. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA.

1.- Dirulaguntza emateko ebazpena Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratuko da, eta honako hauek adieraziko dira: deialdia, programa, aurrekontu-kreditua, onuraduna, emandako zenbatekoa eta dirulaguntzaren xedea edo helburuak.

2.- Edozein hedabidetan laguntzen xede den jarduerari buruz egiten den aipamen orok oinarri hauen 12. artikuluan azaltzen diren baldintzak bete beharko ditu (KOMUNIKAZIO- ETA PUBLIZITATE-BALDINTZAK):

3.- Horrez gain, hala dagokionean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean oinarri hauen xede diren laguntzen publizitate-betebeharrei buruz ezarritakoa bete

 <p>PASAIKO UDALA www.pasaia.eus</p>	<p>PASAIKO UDALERRIKO ANDONAEGI AUZOKO BIZITEGI-ERAIKINEN JABE-ERKIDEGOEI ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKORAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ETA OINARRI ESPEZIFIKOAK, URRIAREN SEKO 853/2021 ERREGE DEKRETUAREN 1. PROGRAMA APLIKATUZ. DEKRETU HORREN BIDEZ ARAUTZEN DIRA ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANeko BIZITEGI BIRGAITZEAREN ETA ETXEBIZITZA SOZIALAREN ARLOKO LAGUNTZA-PROGRAMAK (NEXT GENERATION EU).</p>	<table border="1"> <tr> <td>IFK/CIF P2006900A</td> <td>T</td> </tr> <tr> <td>Tel. 943 344034</td> <td>0</td> </tr> <tr> <td>Luz./Ext. 926</td> <td>9</td> </tr> <tr> <td>Donibane kalea, 19</td> <td>0</td> </tr> <tr> <td>20110 Pasaia</td> <td>1</td> </tr> <tr> <td></td> <td>0</td> </tr> <tr> <td></td> <td>0</td> </tr> </table>	IFK/CIF P2006900A	T	Tel. 943 344034	0	Luz./Ext. 926	9	Donibane kalea, 19	0	20110 Pasaia	1		0		0
IFK/CIF P2006900A	T															
Tel. 943 344034	0															
Luz./Ext. 926	9															
Donibane kalea, 19	0															
20110 Pasaia	1															
	0															
	0															

beharko da.

32. artikulua. DIRULAGUNTZEN ARTEKO BATERAGARRITASUNA.

1.- Oinarri hauen bidez deitzen diren laguntzak, oro har, bateragarriak izango dira bizitegi-eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientziaren xede bera duten beste edozein laguntza publikorekin, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada eta beste laguntzen araudiak, tokikoak, autonomikoak, nazionalak edo Europakoak, onartzen badu.

2.- Oinarri hauetan arautzen eta deitzen diren laguntzak guztiz bateragarriak izango dira Foru Ogasunek etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzea xede duten jarduketekin lotuta ezartzen dituzten kenkariekin, hobariekin edo beste edozein zerga-onurarekin, betiere berariazko araudian xedatutako baldintzetan.

3.- Oinarri arautzaile hauetan kontuan hartutako dirulaguntza eta laguntza guztiak bateragarriak dira elkarren artean, bai eta beste administrazio publiko batzuek edo administrazio honek edo haren xedearekin bat datozen erakunde publiko edo pribatuek emandakoekin ere, baldin eta hala irizten badiote, bereziki Pasaia Udalak onartutako "Eraikinen BIRGAITZE SAKONEKO jarduketetarako laguntzen programari" atxikitakoak barne, MITMAK, EJK eta Pasaia Udalak sinatutako aldebiko akordioan jasotzen den bezala; betiere, oro har, ezin badute gainditu kasu bakoitzean aurrekontu babesgarrien % 100.

4. – Artikulu honetan xedatutakoa egiaztatzeko, oinarri hauen bidez deitzen diren laguntzen eskabidean, xede bererako eskatu edo eman diren gainerako laguntzen berri emango dute interesdunek, edo, bestela, erantzukizunpeko adierazpen bidez adieraziko dute ez dagoela xede bererako beste eskabiderik edo emandako laguntzarik.

5.- Bateragarritzat jotako laguntzak izapidetzeko, oinarri eta deialdi arautzaileen arabera horietako bakoitzari dagokion prozedurari jarraituko zaio.

6.- Talde teknikoek jarduketaren aurrekontuaren eta laburpenaren banakapena emango dute, aurreikusitako jarduketa-motei eta dirulaguntzak eskatzen zaizkion erakunde bakoitzaren izapidetze-betekizunei egokituta. Jarduketa bakoitzak aurrekontu independente bat izango du, zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak eta egotz dakizkiokeen zerga guztiak jasoko dituena. Era berean, jarduketaren guztizko batura jasotzen duen aurrekontua aurkeztuko da, 14. artikuluko 1. taularen arabera (BIRGAITZE ENERGETIKO ERAGINKORREAN KONTUAN HARTU BEHARREKO JARDUKETAK).

7.- Era berean, bateragarriak izango dira eskubideen titular bakoitzari, banaka eta taldeka, xede berarekin legezkoekin laguntzekin.

33. artikulua. AZPIKONTRATAZIOA.

1.- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikuluan xedatutako ondorioetarako, ematen den dirulaguntzaren izaera kontuan hartuta, proiektu jakin batean obra jakin batzuk egiteko, diruz lagundutako jardueren % 100era arte azpikontratatu ahal izango da.

Horretarako, aipatutako 29. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren 68. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, eta honako baldintza hauek bete beharko dira:

2.- Kontratua idatziz egin beharko da, azken onuradunen (jabeen erkidegoak) eta jarduketak gauzatzeko dituztenen (profesionalak eta enpresak) artean. - Kontratua egiteko, oinarri hauen 13. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira aldeztu aurretik (KUDEAKETA BATZORDEAK. LANAK ESLEITZEKO BALDINTZAK).

34. artikulua. DIRULAGUNTZEN ARLOKO ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK. ZEHAPEN-PROZEDURA.

1.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren IV. tituluan ezarritakoa aplikatuko da.

35. artikulua. ADMINISTRAZIO-BIDEAREN AMAIERA ADIERAZTEA.

1.- Oinarri hauek eta deialdia onartzen dituen erabakiak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Udaleko Osoko Bilkurari, hilabeteko epean, oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean.

36. artikulua. DATU PERTSONALEN BABESA.

1.- Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztearekin batera, erakunde eskatzaileak adierazten du deialdian ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela eta oinarri hauek osorik onartzen dituela. Era berean, adierazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere baimenarekin jasotzen direla, eta onartzen duela datu horiek modu automatizatuan tratatzea eta behar bezala baimendutako Pasaia Udalaren fitxategietan sartzea, eta baimena ematen duela datu horien erabilera udal-kudeaketara soilik mugatzeko. Datu horiek beste administrazio publiko batzuei edo hirugarren batzuei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie, honako araudi hauetan aurreikusitako kasuetan: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez babesteari buruzkoa; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

I. ERANSKINA. BETE BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEN EREDUAK

ARGIBIDEAK ETA OHARRAK

1. DOK. DATUEN TRATAMENDURAKO ETA LAGAPENERAKO ADIERAZPEN-EREDUA, BEEPen JARDUERAK GAUZATZEARI DAGOKIONEZ.
2. DOK. KONPROMISO-ADIERAZPENAREN EREDUA, SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO (SEEP) JARDUKETAK GAUZATZEARI DAGOKIONEZ
3. DOK. INGURUMENARI KALTE HANDIRIK EZ EGITEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA (DNSH PRINTZIPIOA)
4. DOK. IRUZURRAREN AURKAKO POLITIKAREKIKO ATXIKIMENDUAREN ETA EZAGUTZAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA
5. DOK. FINANTZAKETA BIKOITZIK EZ DAGOELA ADIERAZTEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA
6. DOK. INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA
7. DOK. INTERES-GATAZKARI BURUZKO ERANSKINAK (HFP/55/2023 AGINDUA, 2023KO URTARRILAREN 24KOA)
 - 7.1 DOK. I. ERANSKINA
 - 7.2 DOK. II. ERANSKINA

ARGIBIDEAK ETA OHARRAK

Erantzukizunpeko adierazpen hauek eredu orokorrak dira, eta sinatzen den unean zehaztuko da nor gisa sinatzen den.

- **3. DOK. (DNSH)**

- o **DNSH ESKAERA-FASEA (*ex ante*)**

- Egokitasunaren aldeko ebaluazioa jaso beharko du edo, hala badagokio, DNSH printzipioa betetzearen erantzukizunpeko adierazpena.
- 853/2021 EDren 11. artikularen arabera, eraikinetako jarduketek, besteak beste, honako baldintza hauek bete behar dituzte:
 1. Proiektuak eraikuntza- eta eraipen-hondakinak kudeatzeko azterlan bat jasoko du. Ondoren, eraikuntza- eta eraipen-hondakinak kudeatzeko dagokion planean garatuko da, eta, bertan, hondakinen arloko DNSH baldintzak beteko dira.
 2. Eraikinen diseinuek eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna bultzatuko dute eta, bereziki, eraikinak desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna ebaluatzeko ISO 20887 arauari edo beste arau batzuei erreferentzia eginez, frogatuko dute nola dauden diseinatuta baliabideen erabileran efizienteagoak, moldagarriak, malguak eta desmuntagarriak izateko, berrerabiltzea eta birziklatzea ahalbidetzeko.
- Birgaitze Programatuko Bizitegi Ingurunean (BPBI) egiten diren urbanizazio, berrurbanizazio edo ingurune fisikoa hobetzeko jarduketei dagokienez, aurreko baldintzak bete beharko dira proiektuetan, jarduketa motaren arabera aplikagarri zaienari dagokionez.

- o **DNSH JUSTIFIKAZIO-FASEA (*ex post*)**

- Jarduketak amaitutakoan, teknikari eskudun batek sinatutako jarduketa-memoria bat eskatuko da, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Baldintza horien artean dago ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa betetzea (DNSH), hondakinen eta zirkulartasunaren arloan ezarritako betekizunekin bat etorritik.
- Azkenik, 853/2021 EDren 20.a) artikularen arabera, jarduerak guztiz bukatu direla ziurtatzen duen autonomia-erkidegoko zuzendari nagusi eskudunaren ziurtagiria emango da, 853/2021 EDren eskakizuna betez, zeinak ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko printzipioa hartzen baitu barnean (DNSH) 1.5 artikuluan.

- **6. DOK. (IGEA):**

- o Laguntza-espeditzearen (kontrola eta ordainketa kudeatzea) izapidetzean parte diren pertsona guztiek sinatu beharko dute, **banan-banan**, prozedura izapidetzen hasi behar duten unean.
- o Honako hauek dira laguntza-eskabideak ebaluatzeko eta onartzeko prozeduran parte hartzen dutenak edo parte har dezaketanak: dirulaguntza emango duen organoaren arduraduna, oinarriak eta deialdiak idazten dituzten langileak, eskabideak ebaluatzen dituzten adituak, eskabideak ebaluatzeko batzordeetako organoak eta, hala badagokio, aurreko pertsonetako edozeini aholkuak ematen dizkioten teknikariak.

• 7. DOK. (IGEA MINERVA)

- o Laguntza emateko eskumena duen organoak eta eskabideak baloratuko dituzten kide anitzeko organoetako kideek (erabakitzaileak) elektronikoki sinatu behar dute 7.1 DOK. (I. eranskina), laguntza-eskabideak baloratu aurretik eta dirulaguntzen prozeduretako parte-hartzaileak nor diren ezagutzen denean.
- o Eragiketen arduradunak (dirulaguntza ematen duen organoaren presidentek) MINERVA pasatu behar du dirulaguntzaren deialdiko eskabideak baloratzeko fasea baino lehen, eta erabakitzaileen eta parte-hartzaileen datuak gurutzatu behar ditu.

ERABAKITZAILEAK: Dirulaguntzak emateko eskumena duen organoa eta eskabideak baloratzeko kide anitzeko organoetako kideak eta ebazpen-proposamena eta behin betiko ebazpena idazterakoan parte hartzen dutenak.

PARTE-HARTZAILEAK: Prozedurako interesdun guztiak, eskaera baiestekoa den ala ez kontuan hartu gabe.

Hau da, eskabideak baloratzeko fasean erabakitzaile gisa esku hartzen dutenen datuak ez ezik, emakida-ebazpenaren fasean esku hartzen dutenenak eta izapidegileenak ere sartzen dira.

- o Behin MINERVAREN bidez interes-gatazkarik dagoen aztertu ondoren, eragiketen arduradunak ziurtatu behar du ez dagoela interes-gatazkarik, 7.2. DOK. (II. eranskina).
- o MINERVA kontrastea pasatzeko behar diren datuak hauexek dira: eragiketaren erabakitzaileen izen-abizenen zerrenda (dirulaguntza emateko organo eskuduna eta eskaerak baloratzeko kide anitzeko organoetako kideak) eta prozeduran parte hartzen duten pertsona fisikoen izen-abizenak edo IFZ jasotzen dituen zerrenda. Pertsona juridikoak badira, sozietate-izena eta IFZ txertatuko dira.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK sinatuko dira:

- **LAGUNTZAREN ONURADUNAREN** aldetik: eskaera egiten den unean.

Jabeen Erkidegoak, azken onuraduna den aldetik, honako hauek sinatu beharko ditu Jabeen Erkidegoa ordezkatzeko gaitasuna duen pertsonaren bidez: DACI-a (6. dok.), DNSH-a (3. dok.) eta 1. taulan adierazitako gainerako dokumentuak.

Kalteberatasunagatiko laguntzen hartzaileek, gainera, modu osagarrian DACI-a (6. dok.) eta DNSH-a (3. dok.) sinatu beharko dituzte, espediente independenteak direlako laguntza nagusia eta kalteberatasunagatiko laguntza.

Era berean, eta osagarri gisa, Jabeen Erkidegoentzako laguntzen hartzaile guztiak DACI-a ere sinatu beharko dute (6. dok.).

- **KONTRATISTA/AZPIKONTRATISTA** enpresaren aldetik: kontratua formalizatzen den unean, 3. Dokumentua salbu (DNSH-a), obren **ex post** sinatuko dena.
- **PROIEKTUA IDATZI, OBRA ZUZENDU ETA OBRA GAUZATZEKO ZUZENDARITZA**ren aldetik: kontratua formalizatzen den unean, 3. Dokumentua salbu (DNSH-a), obren **ex ante** eta **ex post** sinatuko dena;
 - Kontratatistak sinatu beharko du (*ex post*);
 - Zuzendaritza teknikoak (obraren zuzendaritza, obraren exekuzioaren zuzendaritza, segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa) *ex ante* eta *ex post* sinatuko du.
 - Jabeen Erkidegoa, bere ordezkariaren bidez, eta kalteberatasunagatiko laguntzen hartzaileak, azken hartzaile gisa, *ex ante* sinatuko dute.

- **UDALAREN** aldetik: NEXT funtsak jasotzean 3. eta 6. Dokumentua sinatu behar ditu. Udala hirugarrenen aurrean ordezkatzeko gaitasuna duen pertsonak sinatuko du, egiaztapen, kudeaketa eta ordainketa eskumenak dituzten izapidegileez gain.

1 TAULA

	1. DOK.	2. DOK.	3. DOK.	4. DOK.	5. DOK.	6. DOK.	7.1/7.2 DOK.
ERAGILEAK	DATUEN LAGAPE NA	JARD. GAUZATZEA	DNSH	IRUZURAREN AURKA	FINANTZA KETA BIKOITZA	IGEA	MINERVA IGEA
Eusko Jaurlaritzza			X			X	X ^{5,7}
Udala	X ³	X ³	X	X ³	X ³	X	X ⁷
Hurbileko Bulegoa	X ⁸	X ⁸		X ⁸	X ⁸	X	
Kontratistak/azpikontratistak	X	X	X ²			X	
Proiektua idaztea + Obra Zuzendaritza + Obra Egiteko Zuzendaritza			X ¹ + X ²			X	
Jabeen erkidegoa	X	X ⁶	X	X ⁴	X	X	
Kalteberak	X	X ⁶	X	X ⁴	X	X	

¹: *ex ante*

²: *ex post*

³: *Bulego (Opengela) eta Urbanizazioarentzako laguntzen azken onuraduna izateagatik*

⁴: *Udalak baldin badauka, Udalarenari atxikitzen zaio.*

⁵: *Ministerioarekin 2023ko urtarrilaren 25a baino geroagoko sinadura-data duten akordioetarako zehaztu beharko da.*

⁶: *Jarduketaren hartzaile diren aldetik.*

⁷: *Jarduketaren erabakitzaile diren aldetik. 7.1. dokumentua Minerva pasatu aurretik sinatzen da, eta 7.2. dokumentua, Minerva pasatzean bandera gorri bat ateratzen den kasuetan (zantzia).*

⁸: *Udaleko langileekin bakarrik kudeatzen diren Kudeaketa eta Hurbiltasun Bulego Teknikoek ez dute sinatu behar.*

Udalarekin Kudeaketa eta Hurbiltasuneko Bulego Teknikoa kudeatzeko lankidetzahitzarmena sinatu duten erakunde laguntzaileek sinatu beharko dute.

Era berean, kudeaketa horretarako azpikontratutako erakundeek ere sinatu beharko dute.

Azken bi kasu hauetan, 1. eta 2. dokumentuetarako, gainera, honako informazio hau jasotzen duen dokumentua erantsi beharko da:

- Onuradunaren/kontratistaren edo azpikontratistaren IFZ-a.
- Pertsona fisikoaren izena edo pertsona juridikoaren izen soziala (onuraduna/kontratista edo azpikontratista).
- Pertsona fisiko edo juridikoaren helbide fiskala (onuraduna/kontratista edo azpikontratista).
- Jarduera ekonomikoak garatzen dituzten onuradunek, kontratistek edo azpikontratistek egiaztatu beharko dute Zerga Administrazioeko Estatu Agentziako enpresarien, profesionalen eta atxikitzaileen erroldan izena emanda daukatela edo Foru Zerga Administrazioaren errolda baliokidean, islatuz laguntza eskatzen den egunean benetan garatutako jarduera ekonomikoa.

1. DOK. DATUEN TRATAMENDURAKO ETA LAGAPENERAKO ADIERAZPEN-EREDUA, BEEPen JARDUERAK GAUZATZEARI DAGOKIONEZ.

Nik, _____ jaunak/andreak, nire izenean edo _____ (kontratista/onuraduna) ordezkatuz (IFZ: _____; eta helbide fiskala _____). Erakundea SEEPeko baliabideekin finantzaturako laguntzen onuraduna da, eta kontratista/azpikontratista/onuradun modura parte hartzen du «02 Osagaien 01 INBERTSIOAn: « BIZITEGI-INGURUNEETAN EKONOMIA ETA GIZARTEA SUSPERTZEKO BIRGAITZE-PROGRAMA » definitutako helburuak lortzeko behar diren jarduketak garatzen. Hala, adierazten dut ezagutzen dudala araudi aplikagarria, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/41 (EB) Erregelamenduko 22. artikulua apartatu hauek:

1. Bigarren apartatuko d) letra: «Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan inbertsio-proiektuak eta erreformak egitera bideratutako neurriei dagozkien funtsen erabilera kontrolatu eta auditoria egiteko, bilaketak egitea ahalbidetzen duen euskarri elektronikoko batean eta datu-base bakarrean biltzea datu kategoria harmonizatu hauek:
 - a) Funtsen azken hartzailearen izena.
 - b) Kontratataren eta azpikontratataren izena, funtsen azken hartzailea botere adjudikatzailer bat denean, estatu-mailako edo Batasuneko kontratazio publikoaren arloko zuzenbidearekin bat etorritz.
 - c) Funtsen hartzailearen edo kontratataren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotza-datak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren (26) 3. artikuluko 6. puntuan zehaztutakoaren arabera.
 - d) Suspertze- eta erresilientzia-planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoa zehaztuta eta hala Mekanismoaren esparruan, nola Batasuneko beste funts batzuen esparruan ordaindutako funtsen zenbatekoa ere adierazita».

2. Hirugarren atala: «Artikulu honetako 2. paragrafoko d) idatz-zatian aipatutako datu pertsonalak Estatu kideek eta Batzordeak baino ez dituzte tratatuko, 15. artikuluko 2. paragrafoan eta 23. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako akordioak aplikatzearekin zerikusia duten funtsen erabilerekin zerikusia duten kontrol-prozeduren eta aurrekontu-kudeaketaren onarpenari dagokion alegazioaren ondorioetarako eta iraupenerako. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 319. artikuluaekin bat etorritz, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu Finantza Erregelamenduen 247. artikuluan aipatzen den finantza-informazioaren eta kontuak emateko informazio integratuaren esparruan, eta, bereziki, bereziki, kudeaketari eta errendimenduari buruzko urteko txostenean».

Azaldutako esparru juridikoaren arabera, adierazten du datuak lagatzeko eta tratatzeko baimena ematen duela, aipatutako artikuluetan berriaz zerrendatutako helburuekin.

_____ (e)n, 20__ (e) ko _____ aren _____ (e)(a) n

Izenpea:

2. DOK. KONPROMISO-ADIERAZPENAREN EREDUA, SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO (SEEP) JARDUKETAK GAUZATZEARI DAGOKIONEZ

Nik, _____ jaunak/andreak¹, nire izenean edo (operadore ekonomikoa) _____-ren ordezkari gisa (IFZ: _____).

_____ espediente-zenbakia duen dirulaguntzen lizitazioaren/deialdiaren prozedurari dagokionez, honakoa adierazten dut:

Lehenengoa. Konpromisoa hartzen dut arau juridikoak, etikoak eta moralak betetzeari dagokionez estandar zorrotzenak betetzeko, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta detektatzeko behar diren neurriak hartuz, eta, hala badagokio, atzemandako ez-betetzeen berri emanez dagokion agintaritzari.

Bigarrena. BEEPen edukia kontuan hartuta, konpromisoa hartzen dut ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta ingurumenean inpaktu negatibo esanguratsuak saihesteko ("DNSH", ingelesezko siglen arabera "do not significant harm") Plan horren esparruan gauzatutako jarduketak gauzatzean.

Hirugarrena. Finantzaketa bikoitzik ez dago eta, hala badagokio, ez dago Estatuko laguntzen erregimenarekiko bateraezintasun-arriskurik.

_____ (e)n, 20__ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpea:

¹ Bi operadore ekonomikok edo gehiagok eskaintza aurkezten badute esleipendun izanez gero ABEE formalki eratzeako konpromisoarekin, horien guztien ordezkariak sinatu beharko dute adierazpen hori.

3. DOK.- INGURUMENARI KALTE ESANGURATSURIK EZ EGITEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREdua (DNSH PRINTZIPIOA)

Nik, _____ jaunak/andreak², nire izenean edo (operadore ekonomikoa) _____-ren ordezkari gisa (IFZ: _____).

_____ zenbakidun espedientearen dirulaguntzen lizitazio-prozedurari / deialdiari dagokionez:

ADIERAZTEN DU

Laguntzak eskatzeko aurkeztutako eraikinaren *proiektuak*, *memoriak* edo *liburuak* eta programa horren barruan egiten diren jarduerak honako hau betetzen dutela:

- Egingo diren jarduerak ez diete kalte nabarmenik eragiten ingurumeneko helburu hauei, ingurumenaren aldetik jasagarriak diren jarduera ekonomikoak sailkatzeko sistema (edo «taxonomia») ezarri inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua araberak:

- Klima-aldaketa arintzea.
- Klima-aldaketara egokitzea.
- Baliabide hidrikoak eta itsas baliabideak jasagarritasunez erabiltzea eta babestea.
- Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.
- Atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea.
- Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoritzea.

- Jarduerak 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako betekizunak betetzen dituzte, eta 2. osagaien finkatutako ezaugarri eta baldintza espezifikoetara egokitzen dira. Ezaugarri eta baldintza horiek Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean islatzen dira ingurumen-helburu bakoitzerako:

Ingurumen-helburua	Jarduketek bete beharreko baldintza espezifikoak
1. Klima-aldaketa arintzea	Energia-efizientzia hobetuko da 2010/31/EB Zuzentarauan ezarritakoaren arabera. Horrek kontsumo txikiagoak ekarriko ditu, eta, beraz, BEG gutxiago isurtzea.*
2. Klima-aldaketara egokitzea	Ez da baldintza espezifikorik zehazten, jarduketek helburu hori hobetzen dute (eraikin eta ingurunearen baldintzak hobetzea).
3. Ur-baliabideak eta itsas baliabideak	Ez da baldintza espezifikorik zehazten, jarduketek ez baitute eragin nabarmenik izan behar helburu horretan.
4. Ekonomia zirkularra	Proiektu mailako baldintza espezifikoak: i. Eraikitze-gunean sortutako eraikuntzako eta eraispenerako hondakin ez-arrisksutsuen (2000/532/EE Erabakiak ezarritako Europako Hondakinen Zerrendako 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala izan ezik) % 70 (pisuan) , gutxienez, berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, beste material batzuk ordeztzeko hondakinak erabiliz izaten diren betelanak barne, hondakinen hierarkiarekin eta EBko Eraikuntza- eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorritik. ii. Operadoreek hondakinen sorrera mugatu beharko dute eraikuntzarekin eta eraispenerarekin lotutako prozesuetan , EBko Eraikuntza- eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko protokoloaren arabera, eta eskura dauden teknikarik onenak kontuan hartuta. Gainera, eraispenera selektiboa erabiliko dute substantzia arrisksutsuak modu seguruan ezabatzeko eta manipulatzeko, eta kalitate handiko berrerabiltzea eta birziklatzea

2Bi operadore ekonomikorik edo gehiagok eskaintza aurkeztzen badute esleipendun izanez gero ABEE formalki eratzeko konpromisoarekin, horien guztien ordezkariak sinatu beharko dute adierazpen hori.

Ingurumen-helburua	Jarduketek bete beharreko baldintza espezifikoak
	<p>errazteko, materialak era selektiboan ezabatuz, eraikuntza- eta eraispén-hondakinak sailkatzeko dauden sistemak erabiliz. Halaber, eraispén, ahal dela, modu selektiboan egingo dela ezarriko da, eta sailkapena hondakinak sortzen diren lekuan egingo da lehentasunez.</p> <p>iii. Eraikinen diseinuetan eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna babestuko dute eta, bereziki, erakutsiko dute, ISO 20887 arauari edo eraikinak desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna ebaluatzeko beste arau batzuei dagokienez, nola dauden diseinatuta baliabideen erabileran efizienteagoak izateko, moldagarriak, malguak eta desmuntagarriak, berrerabiltzea eta birziklatzea ahalbidetzeko."</p>
5. Kutsadura	<p>Ez da espero ondorio esanguratsurik.</p> <p>Neurri honetan aurreikusitako jarduketak gauzatzeko erabilitako eraikuntza-osagaiek eta -materialak ez dute amianto eta substantzia oso kezagarriak izango, 1907/2006/EE Erregelamenduaren XIV. eranskinean agertzen den baimena behar duten substantzien zerrendatik abiatuta identifikatutakoak. *</p>
6. Biodibertsitatea eta ekosistemak	<p>Ez dago baldintza espezifikorik, jarduketek ez baitute eragin zuzenik edo zeharkakorik izan behar biodibertsitatean edo ekosistemetan.</p>

(*) 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako programaren betekizunak.

- Proiektuan gauzaten diren jarduerak aplikatzekoa den indarreko ingurumen-araudia beteko dute, DNSH printzipioaren helburuekin lotutakoak.
- Proiektuan eta harekin batera doan hondakinaren kudeaketari buruzko azterlanean deskribatutako jarduerak ekonomia zirkularren helburuaren ebaluazio substantiborako b) atalean ezarritako irizpide espezifikoak bete egiten dituzte, honako honen arabera:
 - Proposatutako eraikuntza-birgaitzea eraikuntzak lehendik dauzkan baldintzatzaileetatik abiatzen da. Ondorioz, eraikuntza zirkularreko irizpideak hartu dira kontuan.
 - Aintzat hartutako eraikuntza-teknikek zirkulartasuna babesten dute: beharrezko ekintzak egin dira proposatutako jarduketan ondoriozko eraikuntza- eta eraispén-hondakinaren (EEH) % 70 gutxienez berrerabili, birziklatu eta berreskuratu ahal izateko.
- Adierazpen honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dira.

_____ (e)an, 20__ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpea:

3. DOK.- INGURUMENARI KALTE ESANGURATSURIK EZ EGITEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREdua (DNSH PRINTZIPIOA). (Teknikoentzako)

Nik, _____ jaunak/andreak³ (NAN _____) eta _____-n lizentziatua/graduata, _____-ko Elkargo Ofizialean _____ elkargo zenbakia _____ izanik, nire izenean eta _____ erakundea ordezkatzuz (IFZ: _____).

_____ zenbakidun espedientearen dirulaguntzen lizitazio-prozedurari / deialdiari dagokionez:

ADIERAZTEN DU

Laguntzak eskatzeko aurkeztutako eraikinaren *proiektuak*, *memoriak* edo *liburuak* eta programa horren barruan egiten diren jarduerak honako hau betetzen dutela:

1. Egingo diren jarduerak ez diete kalte nabarmenik eragiten ingurumeneko helburu hauei, ingurumenaren aldetik jasangarriak diren jarduera ekonomikoak sailkatzeko sistema (edo «taxonomia») ezarri inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua araberak:

- Klima-aldaketa arintzea.
- Klima-aldaketara egokitzea.
- Baliabide hidrikoak eta itsas baliabideak jasangarritasunez erabiltzea eta babestea.
- Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.
- Atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea.
- Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoritzea.

2. Jarduerak 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako betekizunak betetzen dituzte, eta 2. osagaien finkatutako ezaugarri eta baldintza espezifikoetara egokitzen dira. Ezaugarri eta baldintza horiek Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean islatzen dira ingurumen-helburu bakoitzerako:

Ingurumen-helburua	Jarduketek bete beharreko baldintza espezifikoak
1. Klima-aldaketa arintzea	Energia-efizientzia hobetuko da 2010/31/EB Zuzentarauan ezarritakoaren arabera. Horrek kontsumo txikiagoak ekarriko ditu, eta, beraz, BEG gutxiago isurtzea.*
2. Klima-aldaketara egokitzea	Ez da baldintza espezifikorik zehazten, jarduketek helburu hori hobetzen dute (eraikin eta ingurunearen baldintzak hobetzea).
3. Ur-baliabideak eta itsas baliabideak	Ez da baldintza espezifikorik zehazten, jarduketek ez baitute eragin nabarmenik izan behar helburu horretan.
4. Ekonomia zirkularra	Proiektu mailako baldintza espezifikoak: i. Eraikitze-gunean sortutako eraikuntzako eta eraispenerako hondakin ez-arriskutsuen (2000/532/EE Erabakiak ezarritako Europako Hondakinen Zerrendako 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala izan ezik) % 70 (pisuan) , gutxienez, berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, beste material batzuk ordezteko hondakinak erabiliz izaten diren betelanak barne, hondakinen hierarkiarekin eta EBko Eraikuntza- eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorritik. ii. Operadoreek hondakinen sorrera mugatu beharko dute eraikuntzarekin eta eraispenerarekin lotutako prozesuetan , EBko Eraikuntza- eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko protokoloaren arabera, eta eskura dauden teknikarik onenak kontuan hartuta.

3Bi operadore ekonomikorik edo gehiagok eskaintza aurkeztzen badute esleipendun izanez gero ABEE formalki eratzeko konpromisoarekin, horien guztien ordezkariak sinatu beharko dute adierazpen hori.

Ingurumen-helburua	Jarduketek bete beharreko baldintza espezifikoak
	<p>Gainera, eraispen selektiboa erabiliko dute substantzia arriskutsuak modu seguruan ezabatzeko eta manipulatzeko, eta kalitate handiko berrerabiltzea eta birziklatzea errazteko, materialak era selektiboan ezabatuz, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak sailkatzeko dauden sistemak erabiliz. Halaber, eraispena, ahal dela, modu selektiboan egingo dela ezarriko da, eta sailkapena hondakinak sortzen diren lekuan egingo da lehentasunez.</p> <p>iii. Eraikinen diseinuetan eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna babestuko dute eta, bereziki, erakutsiko dute, ISO 20887 arauari edo eraikinak desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna ebaluatzeko beste arau batzuei dagokienez, nola dauden diseinatuta baliabideen erabileran efizienteagoak izateko, moldagarriak, malguak eta desmuntagarriak, berrerabiltzea eta birziklatzea ahalbidetzeko."</p>
5. Kutsadura	<p>Ez da espero ondorio esanguratsurik.</p> <p>Neurri honetan aurreikusitako jarduketak gauzatzeko erabilitako eraikuntza-osagaiek eta -materialak ez dute amianto eta substantzia oso kezagarriak izango, 1907/2006/EE Erregelamenduaren XIV. eranskinean agertzen den baimena behar duten substantzien zerrendatik abiatuta identifikatutakoak. *</p>
6. Biodibertsitatea eta ekosistemak	<p>Ez dago baldintza espezifikorik, jarduketek ez baitute eragin zuzenik edo zeharkakorik izan behar biodibertsitatean edo ekosistemetan.</p>

(*) 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako programaren betekizunak.

3. Proiektuan gauzaten diren jarduerak aplikatzeko den indarreko ingurumen-araudia beteko dute, DNSH printzipioaren helburuekin lotutakoak.

4. Proiektuan eta harekin batera doan hondakin kudeaketari buruzko azterlanean deskribatutako jarduerak ekonomia zirkularraren helburuaren ebaluazio substantiborako b) atalean ezarritako irizpide espezifikoak bete egiten dituzte, honako honen arabera:

- Proposatutako eraikuntza-birgaitzea eraikuntzak lehendik daukan baldintzatzaileetatik abiatzen da. Ondorioz, eraikuntza zirkularreko irizpideak hartu dira kontuan.
- Aintzat hartutako eraikuntza-teknikek zirkulartasuna babesten dute: beharrezko ekintzak egin dira proposatutako jarduketan ondoriozko eraikuntza- eta eraispen-hondakin (EEH) % 70 gutxienez berrerabili, birziklatu eta berreskuratu ahal izateko.

5. Adierazpen honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dira.

Eta horrela jasota gera dadin, honako hau sintazen dut,, _____ e)n, sinadura digitaleko datan.

Sinadura:

Teknikari eskudunak sinatuta.

4. DOK. IRUZURRAREN AURKAKO POLITIKAREKIKO ATXIKIMENDUAREN ETA EZAGUTZAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

Nik, _____ jaunak/andreak, nire izenean edo _____ ordezkatzuz, honako hau

ADIERAZTEN DUT:

LEHENA. - Iruzurraren aurkako neurrien plan propioa dugu, eta bat dator Berroneratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduekin eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduekin, Esku-hartze Orokorren eta Zerbitzu Juridikoen Berroneratze eta Erresilientzia Mekanismoen arloko gomendioekin eta erakunde publikoetan baliokideak diren kontrol-organoekin eta jarraibideekin, bai eta EBk iruzurraren aurka ezartzen duenarekin ere.

Halakorik ezean, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onartutako planari atxikitzen gataizkio: *Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumen-kalte ez-nabarmeneko baldintzak betetzeko neurrien plana.*

BIGARRENA - Iruzurraren aurkako politikaren edukia ezagutzen dugu, bai eta horretarako ezartzen diren betebeharrak ere, eta ahalik eta publizitate handiena emateko konpromisoa hartzen dugu.

HIRUGARRENA. - _____ jauna/andrea izendatzen da Eusko Jaurlaritzarekiko iruzurraren aurka borrokatzeko solaskide.

_____ (e)an, 20__ (e)ko _____aren _____ (e)(a)n

Izenpea:

Oharra:

Partikularrek bigarrena baino ez dute adierazten

5. DOK. FINANTZAKETA BIKOITZIK EZ DAGOELA ADIERAZTEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

Nik, _____ jaunak/andreak (NAN: _____), erakundearen titular/ordezkarri gisa (IFZ: _____; zerga-helbidea: _____), SEEP-eko 1.go INBERTSIOKO 2. OSAGAIKO AUZO MAILAKO BIRGAITZE JARDUKETEN PROGRAMA izeneko jarduketaren esparruan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik (SEEP) datozen baliabideen hartzailea den aldetik, bere erantzukizunpean deklaratu du, honako galdera hauei erantzunez:

- Ez dut jaso Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua (Berroneratze eta Erresilientzia Mekanismoa (BEM) ezartzen duena) ez den Europar Batasuneko Funtzaren laguntzarik, eta ez dudala aurkeztuko aurrekontu nazionaletik edo EBtik eratorritako aurrekontua duen etorkizuneko beste edozein Funtzaren finantzaketarako.

Jarraitu soilik aurreko baieztapenean laukitoxa markatu ez bada; hau da, proiektuak helburu bererako beste funts baten finantzaketa jaso badu edo etorkizunean jasotzea aurreikusita badago:

- Laguntzak/dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritako mugetara egokitzeko konpromisoa hartzen dut.
- Gastuen jarraipena egiteko konpromisoa hartzen dut, finantzaketa bikoitzik ez dagoela ziurtatzeko, Berroneratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzten duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Badaude mekanismoak eta kudeaketa-gaitasuna, proiektuaren finantzaketaren trazabilitatea ziurtatzen dutenak.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30.4 artikulua arabera, finantzaketa bikoitzik ez dagoela egiaztatzeko justifikazio-agiriak aurkezteko konpromisoa hartzen dut.
- Honako datu hauek identifikatzen dira:

DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK: Edozein administrazio edo erakunde publikori xede berarekin emandako edo eskatutako laguntzak eta dirulaguntzak

Administrazioa edo erakunde publikoa	Xedea	Egoera	Guztira (€)
Eskatutakoa, guztira: _____ €		Emandakoa, guztira: _____ €	

_____ (e)n, 2023ko _____ (e)(a)ren _____ (e)an

Izenpea:

Kargua: _____

OHARRA:

Jabeen Erkidegoak eta kalteberatasunagatiko laguntzen hartzaileek behin bakarrik sinatzen dute eskabide-fasean. Udalak, onuradun gisa, behin bakarrik sinatzen du akordioa sinatzen denean.

6. DOK. INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA

Espediente-zenbakia eta -mota: _____

Tresna juridikoa: DIRULAGUNTZA

Izena eta abizenak: _____

IFZ: _____


Kargua: _____

Goian aipatutako prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, behean aipatzen diren pertsonak, sinatzaileak, espedientea kudeatu eta gauzatzeko prozesuan parte-hartzaile den/diren aldetik, honako hau:

ADIERAZI NAHI DU / DUTE:

Lehenengoa. Honako hauen berri dudala:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBko finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua, «Interes-gatazkak» izenekoak, ezartzen duenez, «interes-gatazka egongo da funtzioak inpartzialki eta objektiboki betetzea kolokan badago familia, afektu, kideatasun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoierengatik».
2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren distortsio oro saihestea, prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatuak guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.
3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartzetik abstenituko direla «administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeraren batean daudenean», zehazki, egoera hauetako batean:
 - a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokkeen beste batean; baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
 - b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkarietza edo mandataritzarako.
 - c) Aurreko apartatuan aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezina nabarmena izatea.
 - d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.
 - e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izatea.

 <p>PASAIKO UDALA www.pasaia.eus</p>	<p>PASAIKO UDALERRIKO ANDONAEGI AUZOKO BIZITEGI-ERAIKINEN JABE-ERKIDEGOEI ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKORAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ETA OINARRI ESPEZIFIKOAK, URRIAREN 5EKO 853/2021 ERREGE DEKRETUAREN 1. PROGRAMA APLIKATUZ. DEKRETU HORREN BIDEZ ARAUTZEN DIRA ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO BIZITEGI BIRGAITZEAREN ETA ETXEBIZITZA SOZIALAREN ARLOKO LAGUNTZA-PROGRAMAK (NEXT GENERATION EU).</p>	<table border="1"> <tr> <td>IFK/CIF P2006900A</td> <td>T</td> </tr> <tr> <td>Tel. 943 344034</td> <td>0</td> </tr> <tr> <td>Luz./Ext. 926</td> <td>9</td> </tr> <tr> <td>Donibane kalea, 19</td> <td>0</td> </tr> <tr> <td>20110 Pasaia</td> <td>1</td> </tr> <tr> <td></td> <td>0</td> </tr> <tr> <td></td> <td>0</td> </tr> </table>	IFK/CIF P2006900A	T	Tel. 943 344034	0	Luz./Ext. 926	9	Donibane kalea, 19	0	20110 Pasaia	1		0		0
IFK/CIF P2006900A	T															
Tel. 943 344034	0															
Luz./Ext. 926	9															
Donibane kalea, 19	0															
20110 Pasaia	1															
	0															
	0															

Bigarrenena. Ez dagoela EBren Finantza-Erregelamenduaren 61.3 artikuluan interes-gatazkatzat sailkatzen diren egoeretako ezeinetan, eta ez dagoela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan ezartzen diren eta prozeduran eragina izan dezaketen abstenitzeko arrazoiertako ezeinen mende.

Hirugarrena. Interes-gatazken egoera oro edo egoera hori eragin duen edo dezakeen abstentzio-kausa oro kontratazio-organoari, ebaluazio-batzordeari edo hautaketa-organoari luzapenik gabe jakinarazteko konpromisoa hartzen du eta ebaluazio-prozesuan eta prozedura honekin lotuta jardueria guztietan parte hartzeari utziko dio.

Laugarrena. Konfidentzialtasunez tratatuko ditu prozedura horien esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2007 Legearen 133. artikuluan ezarritako betebeharren esparruan.

Bosgarrena. Badakit interes-gatazkarik ez daukadala adierazteko aurkeztu dudan agiria faltsua dela frogatzen bada, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina-, administrazio- eta justizia-ondorioak izango ditudala.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NAN)

KARGUA:

- *Zaurgarrien laguntzaren hartzaileen kasuan, adierazi LAGUNTZAREN AZKEN HARTZAILEA.*
- *Jabeen Erkidegoen kasuan, adierazi: Jabeen Erkidegoen ordezkaria.*
- *Hurbiltasun Bulegoaren kasuan, adierazi: espedienteen kudeaketaz, kontrolaz eta ordainketaz arduratzen den pertsonak betetzen duen kargua.*
- *Udalaren kasuan, adierazi dirulaguntzen kudeaketaz arduratuko den pertsonaren kargua.*

7. DOK. INTERES-GATAZKARI BURUZKO ERANSKINAK (HFP/55/2023 AGINDUA, 2023KO URTARRILAREN 24KOA)

7.1 DOK.- I. ERANSKINA

Interes-gatazkarik ezaren adierazpenaren eredia

Espedientea: _____

Dirulaguntza: ANDONAEGI AUZOKO BIZITEGI-ERAIKINEN JABE-ERKIDEGOEI ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKORAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ETA OINARRI ESPEZIFIKOAK.

Izen-abizenak: _____

IFZ: _____

Kargua: _____

Lehenago aipatutako kontratazio/dirulaguntzaren prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, sinatzaileak, espedientea prestatu eta izapidetzeko prozesuan parte-hartzaile den/diren aldetik, honako hau:

ADIERAZI NAHI DU / DUTE:

Lehenengoa.

Hauk ezagutzen dituela:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBko finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua, «Interes-gatazkak» izenekoak, ezartzen duenez, «interes-gatazka egongo da funtzioak inpartzialki eta objektiboki betetzea kolokan badago familia, afektu, kidetasun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».
2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, honela definitzen du interes-gatazka 64. artikuluan («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa»): «kontratazio-organoarentzat lan egiten duten eta aldi berean lizitazio-prozeduran parte-hartze bat izan dezaketen edo haren emaitzan eragina izan dezaketen langileen edozein egoera, lizitazio-prozeduraren testuinguruan haien inpartzialtasuna edo independentzia itxura batean zalantzan jar dezakeena interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala zuzenean edo zeharka izateagatik».
3. 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuak honako hau ezartzen du: «Interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatua aplikatuko zaie erakunde erabakitzaileen, betearazleen eta instrumentalen zerbitzura dauden enplegatu publikoei eta gainerako langileei, baldin eta banaka edo kide anitzeko organoetako kide gisa parte hartzen badute deskribatutako prozeduretan, kontratuak adjudikatzeko edo dirulaguntzak emateko prozeduretan».
4. Aipatutako ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuak honako hau ezartzen du:
 - «Tresna informatikoaren bidez, familia-harreman edo sozietate-lotura zuzenak edo zeharkakoak aztertuko dira, hain zuzen, aurreko apartatuan aipatzen diren pertsonen eta prozedura bakoitzeko parte-hartzaileen artean interes-gatazka sor dezakeen interes pertsonal edo ekonomikoa eduki dezaketenak».
 - «Harremanak edo loturak identifikatzeko, tresnak, besteak beste, otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d).iii) artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoen titulartasun errealeko datuak jasoko

ditu, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datu baseetan daudenak, bai eta notarioen eta erregistrozailleen elkargoekin sinatutako hitzarmenen bidez lortutakoak ere».

Bigarrena.

Adierazpen hau sinatzean, eta bere esku dagoen informazioa kontuan hartuta, ez dagoela sartuta dirulaguntzak lizitatzeko/emateko prozeduran eragina izan dezakeen interes-gatazkatzat jo daitekeen egoeraren batean, ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren laugarren apartatuan aurreikusitako eran.

Hirugarrena.

Abian den prozeduraren edozein unetan, ezagutu ditzakeen eta gerta daitezkeen interes-gatazken berri emango diela ebaluazio-batzordeari/kontratazio-organoari, atzerapenik gabe.

Laugarrena.

Badaki Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada, aplikatzeko den araudiak ezartzen dituen ondorio diziplinarioei, administratiboei eta judizialei aurre egin beharko diela.

Data eta sinadura (elektronikoa)

KARGUA:

- *Zaurgarrien laguntzaren hartzaileen kasuan, adierazi LAGUNTZAREN AZKEN HARTZAILEA.*
- *Jabeen Erkidegoen kasuan, adierazi: Jabeen Erkidegoen ordezkaria.*
- *Hurbiltasun Bulegoaren kasuan, adierazi: espedienteen kudeaketaz, kontrolaz eta ordaintzetaz arduratzen den pertsonak betetzen duen kargua.*
- *Udalaren kasuan, adierazi dirulaguntzen kudeaketaz arduratuko den pertsonaren kargua.*

7.2 DOK.- II. ERANSKINA

Interes-gatazkarik ez dagoela berresteko eredua

Espedientea: _____

Dirulaguntza: ANDONAEGI AUZOKO BIZITEGI-ERAIKINEN JABE-ERKIDEGOEI ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKORAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ETA OINARRI ESPEZIFIKOAK.

Izen-abizenak: _____

IFZ: _____

Kargua: _____

Interes-gatazka egoteko arriskua aztertu dugu (MINERVA tresna informatikoaren bidez), urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan ezarritako baldintzetan, agindu horrek arautzen baitu Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko prozeduran interes-gatazka izateko arriskua sistematikoki nola aztertu. Agindu hori 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarria aplikatuz eman zen. Bada, arriskua aztertu ondoren, bandera gorri bat detektatu denez (bandera gorriaren deskribapena, bandera hori jarrazten duten eskatzaileen zerrenda), berriro diot ez nagoela prozeduran nire jarduketara objektiboa kolokan jar dezakeen interes-gatazka eragin dezakeen inongo egoeratan.

Data eta sinadura (elektronikoa)

KARGUA:

- *Zaurgarrien laguntzaren hartzaileen kasuan, adierazi LAGUNTZAREN AZKEN HARTZAILEA.*
- *Jabeen Erkidegoen kasuan, adierazi: Jabeen Erkidegoen ordezkaria.*
- *Hurbiltasun Bulegoaren kasuan, adierazi: espedienteen kudeaketaz, kontrolaz eta ordaintzetan arduratzen den pertsonak betetzen duen kargua.*
- *Udalaren kasuan, adierazi dirulaguntzen kudeaketaz arduratuko den pertsonaren kargua.*

MINERVA KONTRASTERAKO BEHARREZKO DATUAK

Espedientea:			
Kokapena:			
	Izen-abizenak	NANA	Kargua
ERAGIKETAREN ERABAKITZAILEAK (dirulaguntzak emateko organoa osatzen duten pertsonak – Udala)			Eragiketen arduraduna
LAGUNTZA-ESKATZAILEAK			Prozedurako parte-hartzailea
			Prozedurako parte-hartzailea
			Prozedurako parte-hartzailea

Euskadi/Espainiako Dirulaguntza Erregistroa (Link)			

II. ERANSKINA. (ERAIKUNTZA-PROIEKTUETAN ZIRKULARTASUNA EZARTZEKO ETA 853/2021 ERREGE-DEKRETUAREN PROGRAMETAN ZIRKULARTASUN-BETEKIZUNAK EBALUATZEKO LAGUNTZA-DOKUMENTUA (ISO 20887:2020 ARAUARI ERREFERENTZIA EGINEZ)

ISO 20887⁴ nazioarteko estandarra da, ekonomia zirkularraren irizpideak⁵ eraikuntzaren eremuan sartzeko printzipio orokorrak ematen dituena. Lortu nahi den helburua da, kontzeptu ekonomikoan bezala, eraikuntzaren hondakinak ezabatzea eta eraikinen edo haien osagaien bizitza erabilgarria oro har luzatzen laguntzea.

Proiektu zirkularraren helburu nagusietako bat da (ingelesez, «Design for disassembly and adaptability» (DfD/A), aktibo moldaerazak sortzea, etorkizuneko egoeran edo desmuntatzerakoan zatiak berrerabili, birziklatu edo balioz handitu daitezzen.

Azpirarratu behar da ez dela bete beharreko dokumentua, ez baitu halako eraginik araubidean. Hala ere, 853/2021 EDk eskatutako berriazko baldintza da, hau da, diruz lagundu daitezkeen jarduketan eraikinen diseinuak eta eraikuntza-teknikek kontuan hartzea zirkulartasun-printzipioak. Hortaz, azken hartzaileek ezagutu egingo dituzte eta kontuan hartuko dituzte proposatutako proiektuetan. Gainera, proiektuaren fase ezberdinetan zehar, azken hartzaileek proiektuaren informazioa kudeatzen laguntzeko dokumentazioa txerta dezakete, hala zirkulartasuna hobetzeko.

ISO 20887 ESTANDARREAN DESKRIBATUTAKO ZIRKULARTASUN-PRINTZPIOEN DESKRIBAPENA

853/2021 EDaren programen eraikietan birgaitze energetikorako jarduketak egiteko, proiektuek kontuan hartu behar dituzte desmuntatzeko ahalmenari buruz ISO 20887k deskribatutako printzipioak eta, ahal den heinean, jarduketaren berriazko ezaugarriak ere hartuko dira kontuan.

ERAIKITAKO AKTIBOAK DESMUNTATZEKO AHALMENARI BURUZKO PRINTZPIOAK

Osagai eta instalazioetara irisgarritasuna. Instalazioen eta eraikuntza-sistemen zati ezberdinak irisgarriak izatea esan nahi du, hala horiek ordezkatu eta mantentzea errazteko. Ildo horretatik, loturek hobeto funtzionatzen dute, agerikoak direnean. Desmuntatu daitezkeen loturak baldin badaude, horiek eraikitzeke xehetasunak malgutasun nahikoarekin diseinatuko dira, zati bakoitza manipulatzeko aukera egon dadin.

Independentzia. Zati, osagai, modulu eta sistema ezberdinak kendu eta berritzeko aukera ematen dute, eraikin osoan eragin gabe. Eraikin bate sistema nagusiak (egitura, inguratzailea, instalazioak eta akaberak) independenteak direla eta lehorreko lotura-erabilera bermatzeak desmuntatzeko ahalmena areagotzen du.

Akaberak: hautatutako akaberak substratuak berrerabiltzea edo birziklatzea baldintzatuko dute. Errazagoa izango da amaierako akaberarik behar ez duten elementuak berrerabili eta birziklatzea.

Ekonomia zirkularra laguntzea: eraikinaren zatiak berrerabili, birziklatu, berriz egokitu eta ordezkatzeko laguntzen duten materialak eta soluzioak hautatzea esan nahi du.

Sinpletasuna: sistema batek eskatzen zaion errendimenduaren baldintzak ahalik eta elementu edo osagai gutxienarekin eta pertsonalizazio txikienarekin betetzeko duen ezaugarria da. Hala, matxurak murriztu eta eraikina konpontzea eta mantentzea errazten da.

Estandarizazioa: pieza normalizatuak hartzen badira kontuan, desmuntatzeko ahalmena hobetu egingo da. Tamaina estandarreko materialak hautatzen badira, errazagoa izango horiek ordezkatzeko, hori beharrezkoa balitz.

Desmuntatzeko erraztasuna: zirkulartasuna errazteko, desmuntatzeko erraza ez ezik, segurua ere izan behar da.

MOLDAGARRITASUN-PRINTZPIOA

Moldaeraztasuna: eraikinak obra handiak behar izan gabe hainbat funtzioetara moldatzeko duen ahalmena da.

Bihurgarritasuna: erabiltzailearen beharrezko aldaketa nabarmenetara aldaketan bidez egokitzeko ahalmena da.

⁴ ISO 20887:2020 Sustainability in buildings and civil engineering works — Design for disassembly and adaptability — Principles, requirements and guidance <https://www.une.org/encuentra-tu-norma/busca-tu-norma/iso?c=069370>

⁵ Pearce y Turne (1989)

Hedatzeko ahalmena: erabiltzaileen beharrianak nabarmen aldatzen direnean eraikinak egokitzeko ahalmena da eta, horretarako, espazio, ezaugarri, aukera eta ahalmen berriak eskuratzen dira. Eraikin kasuan, hedatzeko ahalmenak esan nahi du hedatze bertikala edo horizontala izateko diseinatu dela.

ZIRKULARTASUNA HOBETZEKO EKINTZAK ETA JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTAZIO PROPOSAMENA

ISO 20887 estandarrak proiektuaren fasearen arabeko ekintza-sorta bat gomendatzen du, eraikitako aktiboen moldatzeko eta desmuntatzeko ahalmena hobetzeko. Gomendio horiek jarraitzea eta proiektuaren bizitza erabilgarrian zehar dokumentazioa behar bezala kudeatzea onuragarria da proiektuen zirkulartasunerako.

Dokumentazio-proposamen bat jaso da jarraian (ez da derrigorrezkoa). Diruz lagundutako proiektuek dokumentazio hori jaso dezakete, eraikuntza-proiektuetan zirkulartasuna ezartzen aurrera egiteko.

Zirkulartasuna hobetzeko ekintza posibleak eta justifikatzeko dokumentazio proposamena		
ISO 20887:2020		Fase bakoitzean barne hartutako ekintzak justifikatzeko dokumentazio-proposamena
Fasea	Aurreikusitako ekintzak	
Proiektua	Desmuntatzeari dagozkion adierazleak betetzea.	<ul style="list-style-type: none"> • DfD/A diseinuaren adierazleekin desmuntatzeko ahalmenaren printzipioen ebaluazioa (ISO 20887:2020-ren C Eranskina) • Exekuzio-proiektua, xehetasun tekniko eta zehaztepenekin.
	Desmuntatzeko estrategiak diseinatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Desmuntatzeko gidaliburua. Erabilera jarraibideak (Eraikinaren Liburua).
	Erabilitako material eta elementuen trazabilitatea ziurtatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Materialaren fitxa edo pasaporteak, datu teknikoekin, hornitzailea, jatorriari buruzko informazioa, erabilera posibleak eta aktiboaren bizitza erabilgarriaren amaieran balioa emateko proposamenak. • Zuzeneko identifikazio-sistemak txertatzea: barra-kodeak, RFID edo antzekoak.
	Eraikinaren behar bezalako mantentze lanak deskribatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Mantentze Plana Eraikinaren Liburuan.
	Informazioa behar bezala kudeatzen dela eta hori eraikuntza-eragileei helarazten zaiela ziurtatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Eraikinaren bizitza erabilgarrian informazioa kudeatzeko prozedura. • BIM eredua, dagokion informazioarekin.
Eraikuntza	Zirkulartasunaren helburuei laguntzeko aldaketa-ordenak kudeatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Ordena-liburua.
	Informazioa behar bezala kudeatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • As-built (Eraikinaren Liburua) • BIM eredu eguneratua (as-built eredua)
Erabilera	Mantentze-prozedurak betetzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Eraikina bizitza erabilgarrian zehar

		konpondu, eraberritu edo birgaitzeko egindako esku-hartze guztien inguruko informazioa (Eraikinaren Liburua).
	Informazioa behar bezala kudeatzea.	<ul style="list-style-type: none"> ● BIM eredu eguneratua, dagozkion aldatetekin.
Bizitza erabilgarriaren amaiera	Behar bezalako eraipen/desmuntatzea egiteko eragileak prestatzea.	
	Hondakinak kudeatzeko agertoki posibleak garatzea, kontuan hartuta eraikina dagoen berriazko testuinguruaren ezaugarriak.	<ul style="list-style-type: none"> ● Eraikuntzako hondakinen kudeaketa 105/2008 EDren arabera aztertzea. ● Materialen fluxuen erregistroa duten albaranak. ● Trazabilitatearen amaierako txostena edo balorizazio-ziurtagiria.
Dibulgazioa	Diseinu zirkularren emaitzak eta eraikinaren bizitza erabilgarriaren faseetan zehar aurre egindako erroka posibleak zabaltzea.	<ul style="list-style-type: none"> ● Proiektu zirkularri buruzko informazio kualitatibo eta kuantitatiboa emango duten argitalpenak.